

# TESTULIBURU ETA MATERIAL DIDAKTIKOAREN KUDEAKETA SOLIDARIO ETA BIDEZKORAKO PROGRAMAREN AZTERKETA

GREMIO  
DE EDITORES  
DE EUSKADI



EUSKADIKO  
EDITOREEN  
ELKARTEA



Estudios de Ocio  
Aisialako Ikaskuntzak  
**Deusto**

**Ikerketa taldea:**

Joseba Doistua Nebreda

Xabier Landabidea Urresti

## **GAIEN AURKIBIDEA**

0. Sarrera	1
1. Txostenaren helburua eta metodologia	3
2. Liburuaren sektorea EAEn	6
2.1. Liburua kulturaren eremuan	6
2.2. Liburuaren sektorea kultur industria gisa	7
2.3. Liburuaren sektorea eta Kulturaren Euskal Plana	9
3. Liburuaren sektorea eta ekarpen ekonomikoa	12
3.1. Sektorearen ekarpen ekonomikoa	14
3.2. Testuliburuaren lekua	25
3.3. Euskara sektorean	28
4. Sektore publikoa eta haren lotura testuliburu tratatu eta erostearekin	31
5. Ereduak eta haien aplikazioa zenbait errealitatetan	33
5.1. Eredu bideragarriak	33
5.2. Aplikazioa zenbait errealitatetan: Espainia, Europa eta munduko gainerako lekuetan	37
5.3. EAEn aplikatutako ereduak	45
6. Ereduari buruzko Ikuspegia, egoera eta izan dezakeen bilakaera	52
7. Jarraipen-ildoak buruzko proposamena	58

---

## **0. SARRERA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatu eta onartutako *Testuliburu eta material didaktikoaren kudeaketa solidario eta bidezkorako programa* testuliburuen maileguaren eredu abian jartzea aurreikusten du derrigorrezko irakaskuntzako mailetan Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe publikoetan, gerora derrigorrezko irakaskuntzako gainerako ikastetxeetara zabaltzeko asmoarekin.

Programaren egutegiak eredu apurka-apurka ezartzea finkatzen du, programa pilotuarekin (edo programa esperimentalarekin) hasi, jarraitu gero lehen hezkuntzako lehenengo bi mailetan ikastetxe publikoetan, txosten hau idazteko datekin bat eginda, harik eta derrigorrezko irakaskuntza osoan guztiz hedatu arte, ikastetxe pribatuak barruan direla.

Txosten hau idazteko unean, programa ezartzeko prozesua eta testuliburuen mailegua “doakotasun” eredu gisa jartzea, abian daude –programa esperimentala hasi zenetik urtebete geroago eta haren formulazioan aldaketa batzuk sartu ondoren–. Beraz, garapenaren hasierako aldi gaude.

Testuinguru horretan eskatu digute egoera eta gerora begirako ikuspegiaren gaineko txosten hau egiteko. Azken finean eskolako materialaren kudeaketarako eredu jakin bat ezartzeak ekar ditzakeen ondorioak aurreikusteko azterketa, beti ere Euskadiko errealitatean kokatuta.

Behin betiko datuak eta ondorengo irakurketak helduko dira horretarako garaia iristen denean, baina, orain, une egokia da programan zuzenean edo zeharka zerikusiren bat duten agenteen iritzia jasotzeko (editoreak, egileak, grafikoak, hezitzaileak, politikariak...), bai diseinuan eta/edo ezarpenean parte hartzen dutelako bai euren eginbeharren ohiko jardunean eragin egingo dielako (irakasleek ikasleen gurasoei azaldu beharko diete sistema, testuliburuarekin lan egiten duen argitaletxeak aurre egin behar dio salmenta osoen bolumenaren jaitsiera handiari...).

Bai liburuaren munduari bai mundu akademikoari eta familiei gainera datorkien aldaketa horren aurrean are beharrezkoagoa da etorkizun hurbilari aurre egiteko orain dauden joerak aztertzea, honen moduko aurrerapen ahalegin baten muga jakitun izanik ere,

aurkitu eta zerrendatu egin daitezke, eta egin behar dira, bai parte duten profesionalen kezka bai iraganean saiatutako kasu eta ereduak.

Zentzu horretan egingo dugu programa honek Euskadin liburuaren munduan ekarriko dituen aldaketak ulertzeko ahalegina.

# 1. TXOSTENAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikasketen Institutuak Euskadiko Editoreen Elkartearentzat egin duen txostenaren abiapuntua testuliburuak Euskal Autonomi Erkidegoan duen **errealitatearen erretratua** da, aparteko arreta jarrita euskarazko argitalpenen berezitasunetan.

Behin errealitatearen azterketa hori eginda, ahalegina egin da legedi berriek dakartzaten aldaketak eta herri-administrazioek prestatutako programak deskribatzeko, beti ere **eragin** apartekoa izango dutenean ez argitaletxeetan bakarrik, baita liburuaren azpisektoreetan ere: sortzaileak, grafikoak, banatzaileak, liburu-dendak eta kontsumitzaileak.

Aldaketa horien guztien artean aparteko arreta jarriko zaio *“Testuliburu eta material didaktikoaren kudeaketa solidario eta bidezkorako programa derrigorrezko hezkuntzako zikloetan EAEko ikastetxe publikoetan”* deritzon programari, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak prestatua.

Aurten ekainaren 21ean Diputatuen Kongresuak onartutako Irakurketa, Liburu eta Liburutegien Lege berria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako programa bezala, onartu berriak dira. Horregatik, azterketa honen bitartez liburuaren sektoreak Euskadiko testuinguruan dituen berezitasunak deskribatu eta politika berriek eta lege-marko berriak liburuaren balio-kate osoan eta beste sektore batzuetan izan ditzaketen eraginak aurreikusi nahi dira.


Beraz, zeharkako ikuspegia bilatzen da, azterketa ekonomiko hutsetik harago, euskal barruko merkatuaren gaineko txostenetan jasotako **adierazle kuantitatiboak** barruan dituela, **aipamen kualitatiboekin** sektoreko profesionalei, egileei, hezitzaileei, eta abar egindako elkarrizketa sakonetatik hartuta.

Jarduera horrek etorkizunean oinarritu behar du, ez da lortutako emaitzak neurtzeko ebaluazioa (oso interesgarria izango litzateke hori, zalantzarik gabe, Galiziako *Estudio de viabilidad* dearen antzera), horregatik guztiz garrantzitsua da ahots- eta iritzi-ugaritasuna erakusteko ahalegina, eta sektore horretan halako ekimenak abiatu dituzten beste lurralde eta Autonomi Erkidegoetako esperientziarekin kontrastatzea.

Doakotasun eredu jakin bat inguru jakin batean ezartzeak ekar ditzakeen ondorioak aztertzeak, besteak beste, testulibururako laguntzen eredu ohikoenak aztertzea eskatzen du (diru-laguntza zuzena, liburu-txekea eta mailegua edo jesapena). Laguntza horiek multzo handi bitan batu daitezke: ikaslea testuliburuaren jabe izatea edo aldi jakin baterako maileguan hartzea.

Hainbat azterketatan, liburuaren sektoreak berak batez ere, ateratako datu kuantitatiboak ez ezik agente nagusiekin elkarrizketa sakonak ere gehitu dira, EAEn sortzen ari den egoera berriarekin lotura zuzena dutelako eta Euskadiko edo Estatuko egoeraren berri handia dutelako.

Liburuaren sektoretik egindako bigarren mailako iturrietako datuei dagokienez, aztertutako gaietan aldeak dituzten arren, badituzte zenbait puntu komun, liburuaren sektorea Euskadin nola dagoen ideia orokorra eman dezakete. Hurrengo taulan ikusten dira zein eremu aztertu diren:



Elkarrizketa sakonetan aurretik gidoi bat prestatu da, txosten honetan ageri diren osagai guztiak kontuan hartuta.

Lehenengo zatian testuliburua aztertzen da: zer den eta zer ez den, argialetxeen egitekoa testuliburuak eta material didaktikoak egitean eta testuliburuaren garrantzia eskolan, bai

eskola-curriculumak garatzeko bai EAerako eduki apartekoak lantzeko ikuspegitik. Aldi berean ze garrantzi daukan argitalpen-ekoizpen osoaren barruan eta euskal kultura (narratiba, poesia, saioa...) eta testuak euskaratzea.

Elkarrizketaren bigarren zatian liburuaren errealitateaz EAEn galdetzen da, eta bereziki testuliburuak zenbateko pisua daukan liburugintzari loturiko industria osoan, kulturaren, hezkuntza prozesuan, euskararen eta gizartean orokorrean.

Hirugarren zatia elkarrizketatua dagoen eta ordezkatzeko duen erakundearen ingurura dator, euskarari buruz eta erakundearen beraren ezaugarriei buruz batez ere.

Azken zatia txostenaren gai nagusiari buruzkoa da: testuliburuaren maileguaren gainean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak prestatutako programa. Sakonago eztabaidatzen dira hainbat alderdi: dauden ereduak, zein balore garatzen diren eredu bakoitzarekin (berdintasuna, elkartasuna, baloreen hezkuntza...) eta ustez ekar ditzaketen ondorioak.

Azkenik, egoera berriarekin sortu daitezkeen eragin edo kalteak aztertzen dira, hainbat eremutan: fakturazioa, izenburu-kopurua, argitaletxe ugaritasuna eta sektorearen azterketa orokorra, sorkuntza, liburu-dendak eta kontsumitzaileenganaino.

Horretarako, txostenari gerorako ekarpena izateko balioa eman nahi zaio eta jarraipen-ildo batzuk finkatzea, eszenatokiak identifikatzeko eta etor daitezkeen aldaketen aurrean zerbait egin ahal izateko.

## **2. LIBURUAREN SEKTOREA EAE-N**

Elkarrizketa sakon guztietan argi geratu den moduan, testuliburua batez ere **liburua** da, hau da, paper euskarrian egindako materiala, eta hala delako ezin da liburuaren errealitate orokorretik banandu. Aparteko tratua eman arren (Irakurketa, liburu eta liburutegien Legean hasita, hedabideetan ematen zaion tratu bereziraino, eta derrigorrezko irakaskuntzan ezinbestean erosi beharreko materiala dela kontuan hartuta) dela industria, merkataritza, kultura edo euskarriaren ikuspegitik, testuliburua sorkuntza-ekoizpen-banaketa-kontsumo sistema baten barruan txertatuta dago, eta ezaugarri eta logika jakin batzuk ditu sistema horren barruan, eta ezin dira albora utzi haren garapena ulertu eta aurreikusteko ahaleginean.

Atal honetan negozioaren gaineko kopuruak eman beharrean, sektore horrek kultur sistemaren barruan zer dakarren kontzeptualki kokatu nahi dugu.

### **2.1. LIBURUA KULTURAREN EREMUAN**

Clifford Geetz-ek bezala, kultura gure gainean sortu dugun “**esanahi sare**” gisa definitzen badugu, eskura ditugun komunikazio tresnak (hizkuntza, artea, musika, zinema edo idazkuntza) sare horiek interpretatu, erreproduzitu, gorde eta moldatzeko bitarteko bihurtzen dira, hau da, kulturaren esku hartzeko sarbideak.

Liburua da gizateriak zentzua sortzeko daukan **euskarri-tresnarik** zaharrenetakoa eta aldi berean berrienetakoa, hainbestearaino oraindik ere pentsaezinekoko da –baita aukera bera ere– kultura modernorik libururik gabe. Kulturaren ikonoa izan da luzaroan eta oraindik ere hala da. Hipertestu eta irakurketa ez sekuentzial, inguru interaktibo eta multimedia esploratzeko –ez irakurtzeko– garaian ere, erreferentzia historiko eta materiala gordetzen du era askotako eremuetan, hala nola poesia, matematika, sukaldaritza edo, jakina, hezkuntzan. Informazioa gordetzeko dispositibo mugatua izateaz gainera, liburua oinarrizko osagaia da kultura *interpretatu-gorde-moldatu* hirukotearen barruan, eta areago, **erabiltzaile guztiek prezio-balio kontzeptuetara egokitzeko ondoen baloratzen dutena.**



## 2.2. LIBURUAREN SEKTOREA KULTUR INDUSTRIA GISA

Oso garrantzitsua izan arren, kultur industria kulturaren zati bat baino ez da, liburuaren industria liburuaren edo liburu-kulturaren errealitatearen zati bat baino ez den bezala.

Grafikoak erakusten duen bezala, liburuaren hedapenak barruan harrapatzen ditu bai **industria** (ekoizpen eta zabalkunde adarretan) bai **ondarea** (eta eskuragarritasuna) bai **sorkuntza**. Euskadiko liburu-kultura ez da salbuespena.


Horregatik azterketa honen ikuspegia zehazterakoan, azpisektore guztien datu ekonomikoak eta jarduerak kulturaren eremuan liburuak osatzen duen errealitate korapilotsuago eta handiagoarekin lotu behar dira.

Kulturaren Euskal Plana egiteko edizioari buruz ponentzia eskatu zenean, Euskal Autonomi Erkidegoko soziodemografia, hizkuntza eta kultura esparruetako gainerako aldagaiekin lotuta, D. Javier Gogeoascoecheak hurrengo Mehatxuak, Aukerak,

Ahuleziak eta Indarguneak azaldu zituen liburuaren sektorearen industria-ikuspegian EAEn:

Era batera edo bestera, denek eragiten diote testuliburuaren sektoreari ere, enpresa gehienak "gai-anitzetakoak" direla esan baitaiteke.

**Mehatxuak:** Liburuak irakurri eta erosteko maila eskasa, teknologia berrietako inbertsioen kostu handia eta probetxu eskasa, talde editorial handiak prezio hobea eskaintzeko gai,



erakunde publikoen liburu argitalpenak, prestakuntzarako zentro berezirik ez.

**Aukerak:** Elebitasuna, irakurtzeko ohituren sustapen eta bilakaera, erdi mailako prestakuntza akademikoa, per capita errentaren maila, teknologia berriak, hurbileko merkatuak (Latinoamerika eta EB).


**Ahuleziak:** Sektoreko enpresak nazioartean jardutea (edizio eta banaketa), defizita marketingean eta produktuak nazioartean zabaltzeko, langileen kualifikazio baxua eta inbertsio gutxi I+Grako.

**Indarguneak:** Etxeko merkatua ezagutzea, produktuaren kalitatea, prezioa, administrazioaren hurbiltasuna.

## 2.3. LIBURUAREN SEKTOREA ETA KULTURAREN EUSKAL PLANA

Kulturaren Euskal Planak euskal kultur sistemaren azterketa 3 eremu edo azpisisistematan egitea aurreikusten du: kultur ondarea, sorkuntza eta arte adierazpena eta kultur industriak.

Aurreko atalean aurkeztutako eskemari jarraituz, liburuak hiru azpisisistemak zeharkatzen ditu, izan ere literatura arteetan sartzen da (arte sorkuntza), argitalpen industria kultur industrian (ekoizpen modu estandarizatuak) eta artxibo eta liburutegiak kultur ondarean (edo herri baten memoria historikoa).



Planean bertan proposatutako 6. ardatz estrategikoaren barruan, –kultur industriak eta haien balore-katea bultzatzea– Kulturaren Euskal Planak helburu nagusitzat jartzen du *bultzatzea kultur industrien oinarrizko azpiegiturak, prestakuntza eta ikerketa, sorkuntza, ekoizpena, banaketa eta kulturaren erakusketa eta kontsumoa*. Ardatz hori gauzatzeko 7 jardunbide nagusi, ekintza batzuk eta etorkizuneko garapenerako proposamenak ditu. Kultur sektoreak ezin direla bakarka azertu errepikatu arren, eta kultur eremuko esku hartzeak zeharkako eragina dutela jakinik, aipatzekoa da ardatz estrategiko horretan ez dagoela aipamen bat bera ere liburuari buruz. Hala ere liburuak –eta testuliburuak– lantzen

duten enpresak ekintza eta etorkizunerako proposamen guztietan sartuta daudela uler daiteke (hala nola, adibidez, I+G+I laguntzeko urtearteko planak egiteko proposamena).

4. ardatz estrategikoan, ondarearen gainekoan, hartzen du liburuak ikuspegi horretatik lehen mailako protagonismoa, arkitektura eta etnografiako osagaiekin batera. Hirugarren jardunbideak, erakundeen eta sektoreko agenteen arteko koordinazioa eta elkarlan-sareak lantzeko bitartekoak indartzekoak, honako ekintza hauek ezartzen ditu: Liburutegien Euskal Sistema, Liburutegien Euskal Kontseilua eta Liburutegien Legea definitzea, eta liburutegi digitala garatzea.

Kulturaren Euskal Planak DAFO azterketa bat egitea ere proposatzen du, eta horretan liburuak hainbat ataletan zeharka nabarmentzen da:

**Indarguneak:** Teknologia berriak ezartzea artxibo eta liburutegietako zerbitzuetan, literaturako sortzaileen artean ugaritasuna, ekoizpen bolumen nahiko handia eta liburuaren ekoizpenean batez besteko kalitate ona, industria bizi eta moldakorra, sorkuntza asko euskaraz eta espezializatzeko aukera.

**Aukerak:** Internet zabalkunderako erakusleho gisa, sortzaile belaunaldi berria, hedapenerako aukerak ugaritzea (internet, telebista-kanal berriak...).

**Ahuleziak:** Ohiko irakaskuntza sistema arautuan idazkuntzak leku txikia hartzea, espezializaziorako zentro gutxi, lan-baldintza eskasak liburutegi eta artxiboetan, sortzaileentzat hoberi gutxi, irakurtzeko ohitura gutxi (nerabeen artean eta euskaraz batez ere), egileentzat eskala-desabantailak eta aukerak gutxitzea merkatuaren neurriaren ondorioz (eta euskararen elebitasun-egoeraren ondorioz), periferiakoa izatea Espainiako merkatuan, liburutegi eta artxiboen toki ez nahikoa Informazioaren Gizarteko Euskal Planean, Internet kultura eskasa, argitalpen gain-ekoizpena (tiradak merkatura egokitu arren, errentagarri izateko arazoak), euskal enpresen neurri-arazoa, Euskaditik kanpo merkatuak banatzeko ahultasuna, kanpoko ekoizpena nagusi saltoki handietan.

**Mehatxuak:** Irakurtzeko ohituretan joerak behera egiteko arriskua, sortzaileak gutxitzea eskalako ekonomia duten merkatuen bila joanda, eduki propio gutxi sarean, gehiago eta hobeto sustatutako kulturen kolonizazioa, idazkuntza esperimentalerako sorkuntza-lantegi gutxi, eskaintzako anizkoiztasuna galtzeko arriskua argitalpen-kontzentrazioarengatik, liburu-denden kateak arazo euskarazko liburuarentzat, txikizkako saltzaileak galtzea.

DAFO horretatik, gure azterketarako garrantzitsua den aldetik, adar batzuk nabarmenduko ditugu, derrigorrezko irakaskuntzan testuliburuaren maileguko programa ezartzekotan eragina izan dezaketelakoan.

Hasteko argitalpen-eskaintzan anizkoiztasuna galtzeko arriskua aipatzen da, argitaletxeak kontzentratzeko joeraren ondorioz, eta banaketa-saltokiak batez ere liburu-denden kate eta saltoki handiak izatea (Eroski, Corte Inglés, Carrefour...). Horri gehituz gero euskal merkatuaren estua, euskaraz batez ere, eta bertako materialaren ekoizpenean eskalako ekonomietara heltzeko zailtasuna, ondorioa da liburuaren etorkizun kezkarria Euskadin. Egoera horretan, testuliburuaren ekoizpen industrialak beherantz berregituratzeak aipaturako arazoak larritu egingo lituzke.

Bide horretan bertan, **sortzaileentzako** pizgarririk ezaz (bai merkatuan bai laguntzetan) eta merkatu erakargarriagoetara “**egileen ihesaren**” arazoaz Kulturaren Euskal Planean jasotako kezkak areagotu egiten dira testuliburuaren sortzaile eta egileen kasuan, ezin delako ziurtatu material originala idazteko lana egoki ordaintzea tiradak dagoeneko, materialak berrerabiltzeko programarik ezarri aurretik ere, txikiak direla.


**Laburbilduz, euskarazko merkatuan espezializatzeko aukerak eta balizko gizarte elebidunak, euskal kultur sisteman indargunetzat jasotzen direnek, mehatxu argia daukate merkatua berriro txikituz gero, hori ekarriko baitu fakturazioa jaitsi eta testuliburuaren salmenta gutxituta.**

Beste adar batzuk geratzen dira aztertzeko, hala nola liburua berrerabiltzeak irakurtzeko ohituretan eta gelan idazkuntzak izan beharreko tokian nola eragin duen, esparru horietan ondorengo azterketak egin behar baitira, epe erdi eta luzean.

### 3. LIBURUAREN SEKTOREA ETA EKARPEN EKONOMIKOA

Atal honetan liburuaren sektorearen ekarpen ekonomikoari heldu nahi zaio, liburuaren sektoreko azpisektoreen bigarren mailako iturriek emandako datuak elkarrekin lotuta.

Azterketetan landu dituzten gaitan aldeak badaude ere, puntu askotan bat datoz, eta horrela ideia ahalik eta orokorra eman dezakete liburuaren sektoreaz Euskadin. Hurrengo taulan ikusten dira atal hau zein eremutan banatuko den, sektoreko agente guztiak kontuan hartuta:



Sortzaile eta grafikoei dagokienez ez dago daturik bigarren mailako iturrietan, beraz, azpisektore horien gaineko datuak editoreek, banatzaileek eta irakurtzeko ohituren eta kontsumitzaileen erosketen gainean egindako azterketetatik aterako dira.

Helburua zera da: liburuaren sektorearen ekarpen ekonomikoaren ikuspegia ematea, sektoreko ikerketa guztiak kontuan hartuta, Euskadiko eta euskararen gaineko datuei erreparatuta batez ere. Txostenak urtekoak direla kontuan hartuta eta 2006koak aztertzeko aukerarik gabe, 2006an argitaratutakoak erabili dira, hau da, 2005eko datu ekonomikoak zehatz erakusten dituztenak.

Eskuartean ditugun **azterketa nagusiak** hauek dira:

1. **Liburuaren Barruko Merkatuaren Azterketa Espainian 2005ean.** Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioak urtero egindako azterketa, Kulturako Ministerioak eta CEDROk babestuta.
2. **IX Txostena Euskadiko Edizioaz Barruko Merkataritzan 2005.** Euskadiko Editoreen Elkartearentzat Espainiako Barruko Merkataritzarekin lotutako azterketa eta CEDROk babestua.
3. **Euskarazko Edizioaren Txostena 2005.** Lan honetan Euskal Autonomi Erkidegoko argitaletxeen informazioa batzen da Euskadiko Editoreen Elkartearen bitartez, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuenak, Iparraldeko argitaletxeenak, Espainiako beste Autonomi Erkidego batzuetakoak eta Erakunde Publikoenak. CEDROren babesa dauka.
4. **Irakurketa-ohiturak eta liburu-erosketa Euskadin 2005.** Euskadiko Editoreen Elkartearentzat egina, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta CEDROren babesarekin.
5. **Delphi azterketa liburuak liburu-denda sarearen bidez merkaturatzeaz Espainian.** Liburu-saltzaileen Elkartearen Espainiako Konfederazioak egina.
6. **Espainiako Liburu-denden Behatokiaren liburu-denden mapa 2006.** Espainiako Liburu-denden Behatokiak eta Liburu-saltzaileen Elkartearen Espainiako Konfederazioak egina.
7. **XI Liburu eta Aldizkako Argitalpenen Sektorearen Perfilaren gaineko Azterketa 2005.** Argitalpenen Banatzaileen Elkarte Nazionalen Federazioak egina.

Gehienek, denak ez esatearren, datuak aurkezteko egitura bera darabilte: alderdi tekniko eta metodologikoak, agenteak, lana, fakturazioa, ekoizpena, gaiak, merkaturatzea eta atal berezi batzuk azpisektore zehatzaren gainean.

Denek dituzte lehenengo mailako iturriak, dela inkesta kuantitatiboak dela iturri kualitatiboak: elkarrizketak, foroak, delphiak, etab. Sektoreari egindako inkestak dituztenek inoiz ez dute sektorearen %100 hartzen. Kasu guztietan partea duten agenteen %50 eta %75 bitartekoen erantzuna hartu dute.

Azterketak halako lanak egiten esperientzia duten enpresa espezializatuek egin dituzte, liburuaren sektorea egituratuta dagoen elkarte edo federazioek eskatuta. Era berean, azterketa horretarako inbertsioaren ahalegina neurri handi batean sektoreko elkarte edo

federazioetatik eurengandik dator, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak zati bat lagunduta.

Azterketa objektibo horiez gainera, atal hau idazteko beste iritzi-agiri batzuk kontsultatu dira, bai liburuaren sektoreko agenteenak bai zerikusia duten beste agente batzuenak.


### **3.1. SEKTOREAREN EKARPEN EKONOMIKOA**

Atal honetan datu orokorrak azalduko dira, hobeto ulertu ahal izateko sektorean zerikusia duten agenteak zein diren, non dauden eta haien ezaugarri nagusiak, batez ere neurria fakturazioaren arabera. Beste alde batetik sortzen dituzten lanpostu eta fakturazioaren gaineko zertzelada batzuk emango dira, eta baita argitalpen ekoizpena izenburu, ale eta erabilitako euskarrien arabera.

#### **AGENTEAK: ENPRESAK ETA KONTSUMITZAILEAK**


**Argitaletxeei** dagokienez, Espainian guztira 1272 enpresa dira, horietatik 724 (%56,9) editore elkarteren batean daude. Euskadik guztira 108 argitaletxe dauzka, horietatik 45, %41,6, argitaletxe pribatuak direla, Euskadiko editoreen elkarteko kideak.

1 grafikoa. Argitaletxeen elkarteak





**2 grafikoa. Argitaletxeak Euskadin Espainiakoeikiko**



Beraz, Euskadi Espainian dauden argitaletxeen %8,5 da. Enpresa integrazioari dagokionez, Espainia argitaletxeen %26,5 enpresa talde edo “holding” batean dauden bitartean, Euskadin %15,7 baino ez dira.

2005eko Liburuaren Barruko Merkataritzaren Azterketak dioenez, argitalpen sektore pribatu

eta elkartean sartuaren enpresa egiturak honako ezaugarri hauek ditu: enpresa kopuru txikia (30) urtean bakoitzak 18 milioi euro baino gehiago fakturatzuz, hau da, fakturazio osoaren %63. Fakturazio osoaren gainerako heren ingurua 694 enpresaren artean banatzen da. Azken horien artean daude urtean 600.000 euro baino gutxiago fakturatzuten 400 enpresa.

UDNE, GREMI, ADILE eta ANDP elkarteetan sartutako liburu eta aldizkako argitalpenen **enpresa banatzaileak** 217 dira guztira (133 liburuak eta 84 aldizkako argitalpenak). 2001eko kopuru bera, baina ia baino 6 gehiago. Txosten honen helburu nagusia testuliburuak denez, egokiagoa dirudi erreferentzia gisa liburuak banatzen dituzten 133 enpresen gaineko datuak hartzea.

Beraz, 2005ean, 133 enpresa zeuden, aurreko ekitaldian (2004) baino 8 gehiago, eta horiek liburuak bakarrik edo batez ere liburuak banatzen dituztenak. %52,1ek 3 milioi euroraino fakturatzuten dute, %37,2k 3 eta 18 milioi euro bitartean eta %10,7k 18 milioi euro baino gehiago.

**1 taula. Liburuak banatzen dituzten enpresen ezaugarriak**

% bertikalak	2001	2002	2003	2004	2005	Aldea 05-04
Fakturazio tarteak / Enpresa kopurua	135	132	129	125	133	8
0,6 milioi €-raino	15,5	19,7	17,1	13,6	11,8	-1,8
0,6-3 milioi €	37,8	33,3	33,3	35,2	40,3	5,1
3-6 milioi €	19,3	22,0	21,7	21,6	18,5	-3,1
6-18 milioi €	15,6	13,6	15,5	17,6	18,7	1,1
18 milioi € baino gehiago	11,8	11,4	12,4	12,0	10,7	-1,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	

Enpresa txikiak (3 milioi euroraino salmentan) osoaren %48,8tik %52,1 izatera heldu dira, ertainen eta handien portzentaia gutxitu egin den bitartean.

Liburu eta aldizkako argitalpenen banaketarako azpisektoreek egitura ezberdina daukate fakturazio tarteetan enpresa kopuruari erreparatuz gero. Liburu banatzaile gehienek (%52,1) 3 milioi euroraino baino ez dute fakturatzen; batez ere aldizkako argitalpenak saltzen dituzten enpresen tarteak, gehiengoak, ostera, %47,6, 18 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzte.

**Saltoki eta liburu-dendei** dagokienez, lehenengoetatik Espainian 39.315 daude guztira, horietatik 1.853 Euskadin. Enpresa kopurua 10.000 biztanleko ratioan Euskadi Espainiako batez bestekoa baino 0,19 puntu beherago dago. Datu horiek 2005eko biztanleriaren zentsukoak eta 2006ko Camerdatako enpresen fitxategikoak dira.

**2 taula. Saltokiak Espainian eta Euskadin**

	Enpresak			Biztanleria (biztanleak)	Enpresak 10.000 bizt.
	Pertsona fisikoak	Pertsona juridikoak	Guztira		
<b>Euskadi</b>	1.400	453	1.853	2.124.846	8,72
<b>Espainia</b>	30.119	9.196	39.315	44.108.530	8,91

Beste alde batetik liburu saltokien ratioari erreparatuz gero Espainian herrien neurriaren arabera, ikusten da biztanlerik gehien daukaten udalerriek daukatela batez besteko nazionala baino ratio handiagoa. Batez besteko horren azpitik dagoen herrien tarte (8,91) 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriak dira, 7,41eko ratioarekin. 10.000 biztanleko saltoki kopururik handiena daukaten udalerriak 500.000 eta 1.000.000 biztanle bitartean daukatenak dira.

**3 taula. Liburu saltokien banaketa Espainian biztanleria tarteka**

	Saltokiak	Biztanleria (biztanleak)	Enpresak 10.000 biztanleko.
1.000.000 baino gehiago	4.755	4.748.434	10,01
500.000tik 1.000.000era	3.139	2.706.363	11,60
100.000tik 500.000ra	10.926	10.282.131	10,63
50.000tik 100.000ra	4.762	5.147.839	9,25
Gainerako herriak	15.733	21.223.763	7,41
<b>Guztira</b>	<b>39.315</b>	<b>44.108.530</b>	<b>8,91</b>

Saltzeko tokiak eta liburu-dendak bereizita, orokorrean azken bost urteetan neurria ez da asko aldatu, liburu-denda handiak apur bat gehitu dira eta txikiagoek ehunekoari eutsi diote. Azken horiek gehiengo dira, hurrengo taulan ikusten denez:

**4 taula. Liburu-denda identifikatuen errolda (1999-2005)**

	1999		2005	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Handiak	176	4,6	232	5,4
Ertain handiak	302	8,0	306	7,1
Ertain txikiak	596	15,7	645	15,1
Txikiak (1)	2.721	71,7	2.353	55,0
ED/EE (2)	-	-	744	17,4
Guztira	3.795	100,0	4.280	100,0

Oharrak:

(1) 1999. urtean kontsulta egin zen liburu-denden lagin handiagoan, eta erantzuna izan zen 1.359 liburu-denda txiki.

(2) Elkarrizketatutako informatzaile kualifikatuengandik lortutako informazioaren arabera, eta 2005eko datuak 1999koekin konparatuta, pentsa daiteke neurria ezagutzen ez den liburu-denda gehienak (ED/EE lerroa 2005. urtean) txikiak direla.

Euskadiko liburu-denden kokapenari dagokionez, hiru lurralde historikoen artean guztira 210 liburu-denda daude, estatuan guztira 4.280 direla (%4,91). Araba da liburu-denda gutxien daukan lurralde historikoa, eta ratorik txikiena daukana 1.000.000 biztanleko. Kontrako egoeran dago Gipuzkoa. Liburu-dendatzat identifikatutakoen eta saltoki orokorragoen artean aldeak badaude ere, lotura esanguratsua da.

**5 taula. Liburu-denda identifikatuen banaketa Espainian, Euskadin eta lurraldeka**

		Liburu-dendak	Biztanleria (biztanleak)	Liburu-dendak 1.000.000 bizt.	%liburu-dendak	% biztanleria
Euskadi		210	2.124.846	98,83	4,91	4,82
	Araba	20	299.957	66,68	0,47	0,68
	Gipuzkoa	82	688.708	119,06	1,92	1,56
	Bizkaia	108	1.136.181	95,06	2,52	2,58
Guztira		4.280	44.108.530	97,03	100,00	100,00

Txosten honetarako **kontsumitzaile** mota bi daude: ohiko irakurleak eta ikastetxeetako ikasleak. Azken horiek testuliburuarekin batera aztertuko dira, geroagoko atal batean.

Euskadin, 14 urtetik gorako erdiak baino gehiagok ohiko irakurletzat jotzen dute euren burua (%52,2), estatu osoko datuaren antzera. Noizean behingo irakurleak %15,9 dira, estatu mailako emaitzaren azpitik lau puntu. Datuei begiratuta 1999an hasita, ehunekoak

irregularki aldatuz doaz, antzeko neurrietan eutsiz. Pertsona gazteenen artean daude ohiko irakurle gehien, horretara astean ordu gutxiago emanda hala ere. Beste datu esanguratsu bat da irakurleen portzentaia ikasketa maila altuagoaren proportzioan doala.

## **LANA**

**Editoreen** sektore pribatu eta elkarteetako kideen zuzeneko lana %1,8 igo da aurreko urtekoaren aldean eta %36,9 orain dela 10 urtekoaren aldean. Argitaletxeko batez besteko langile kopurua 20 lagunekoa da, Euskadiko kasuan 9 langileraino jaitsiz. Euskadin argitalpen enpresen jarduera esparru nagusiak dira merkataritza- (30,8%), administrazioa- (%28,4) eta argitalpen-ekoizpena (%39,2). Halaber, kanpoko kolaboratzaileak batez beste 17 lagun dira Euskadin.


Lanari dagokionez **banaketa** sektorean osotasunean baino ez daude datuak, liburu eta argitalpenen artean bereizketarik egin ezinik 2005ean 11.443 langileri eman zioten lana. Langile finkoak %64,8 dira, aldi batekoak %16,5 eta gidari autonomoak %18,3. Aurreko urtekoaren aldean aldi batekoak eta gidari autonomoak gehitu dira.

**6 taula. Banaketa enpresen giza alderdia**

	2001	2002	2003	2004	2005
Langile finkoak	64,8	65,3	66,4	71,1	64,8
Aldi bateko langileak	15,4	15,8	15,0	13,4	16,5
Gidari autonomoak	17,9	17,7	17,7	14,9	18,3
Komertzialak komisio-truke	1,9	1,2	0,9	0,5	0,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Sortutako lana	12.081	11.520	10.711	11.294	11.443
Batez besteko langileak	56	55	50	54	53

Liburu-dendetako lanari dagokionez, neurriaren arabera batez besteko langile kopurua aldatu egiten da, liburu-denda handietan 9,2 eta txikietan 1,8. Ez dago datu orokorrik liburu-dendetako lanpostuei buruz, baina kontuan hartu behar da liburu-denden %70 baino gehiago txikiak direla, horregatik halako lekuetan daude lanpostu portzentaia handienak.

3 grafikoa. Batez besteko langile kopurua liburu-denden neurriaren arabera



## FAKTURAZIOA

2005ean **argitaletxeek** liburuak salduta barruko merkatuan (Espainia) lortutako dirua, azaleko prezioen arabera aterata, BEZ barne, 2.933,23 milioi eurokoa izan da. Aurreko urtekoarekin konparatuta hazkundea %1,8koa izan da eurotan. Saldutako aleak guztira 230.626.086 izan dira (2004an baino %2,7 gutxiago). Testuliburuak salmentaren %23,8 izan dira.

Azken hamar urteetan prezio korranteetan, BEZ barne, hazkundea %31,2koa izan den bitartean, prezio iraunkorretan, inflazioaren eragina eta BEZ kenduta, %1,5 baino ez da irabazi.

Enpresa handien multzoa fakturazio osoaren %63,2koa da, azken urtean %3,5 igo duen talde bakarra dela. Aldiz, enpresa ertain eta txikiak fakturazioa %1,2 eta %0,2 jaitsi dute hurrenez hurren. Azken hamar urteak aztertuz gero progresioa berdintsua da.

**Fakturazioa elkarteka aztertuta, nabarmentzekoa da Euskadi dela kasu bakarra 2004 eta 2005 bitartean aldaketa negatiboa izan duena (%4,5). Era berean fakturazioaren portzentaia Euskadin jaitsi egin da Espainiakoaren aldean, 2004ko %3tik 2005eko %2,8ra.**

**7 taula. Fakturazio-kopuruen aldeak editore elkarten arabera eta gainerako editore-elkarteekiko duten indarraren arabera**

ELKARTEAK	Aldeak fakturazioan elkarteka 2005/2004	Elkarten fakturazioaren pisuaren aldea Espainiako osoarekiko 2005/2004
Madril	3,3	0,6
Katalunia	0,9	-0,6
Andaluzia	7,6	0,1
Galizia	0,7	0,0
Valentzia	3,8	0,0
<b>EUSKADI</b>	<b>-4,5</b>	<b>-0,2</b>

Liburuak bakarrik edo batez ere liburuak banatzen dituzten 133 enpresen fakturazioa 2005ean 1.420,62 milioi eurora heldu zen, aurreko urtean baino %3,3 gehiago.

Enpresa horien fakturazioa liburuengatik 1.397,20 milioi eurokoa bada ere, enpresa banatzaileen fakturazio osoa liburuengatik ateratzeko aurreko kopuruari 276,14 milioi euro gehitu behar zaizkio, Aldizkako Argitalpenen banatzaileen liburuekin fakturatuak. Liburuaren fakturazio osoa, beraz, 1.673,34 milioi eurokoa da.


**8 taula. Fakturazio kopurua 2001-2005 (milioi euro). Liburu-banatzailerak**

	2001	2002	2003	2004	2005	Aldea 2005/2004
Guztira	1.353,43	1.338,62	1.231,05	1.375,02	1.420,62	3,3
Liburuak	1.307,97	1.302,51	1.197,80	1.344,76	1.397,20	3,9
Aldizkako Argitalpenak	10,65	16,98	15,19	3,72	3,73	0,2
Atipikoak	34,81	19,13	18,06	26,54	19,69	-25,8
% urtearteko aldea	2,5	1,1	8,0	11,7	3,3	
Batez besteko fakturazioa	10	10	10	11	11	

**Liburu-dendei** dagokienez, ez dago fakturazioaren daturik, baina ezin da datu interesgarriak jakin liburuaren salmentan, liburu-denden neurrian eta liburu-salmentaren osieran erabilitako merkaturatze-bideetan.

#### 4 grafikoa. Liburuak saltzeko bideak Espainia

Espainian liburuak saltzeko bide nagusia liburu-dendak, liburu-denden sareak eta hipermerkatuak dira. Denen artean salmenta guztien %59 osatzen dute.



Datu horien historikoari dagokionez, 1993tik hona, salmentak urtez urte igo dira. Urte horretatik beste bide batzuk sortu dira, adibidez Internet, harpidetzak eta telefono bidezko salmenta, baina oraindik ere gutxiengoa dira. Txosten honetarako interesgarriena da liburu-denden sareek ia bikoiztu egin dutela salmenta 1999tik eta aldiz liburu-dendak hazi egin direla, baina gutxiago. Hipermerkatu, enpresa eta erakundeetan ere salmentak ugaritu egin dira.

**9 taula. Liburu-salmena saltzeko bidearen arabera Espainian (1993-2004) (milioi euro korrontek)**

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Liburu-dendak eta liburu-denden sareak (1)	718,1	712,6	697,1	769,2	898,1	949,5	1.042,9	1.119,5	1.223,7	1.343,7	1.438,3	1.416,1
Liburu-dendak	-	-	-	-	-	-	787,6	841,0	937,1	1.031,1	1.028,6	998,8
Liburu-denden sareak	-	-	-	-	-	-	255,3	278,5	286,6	312,6	409,6	417,3
Hipermerkatuak (2)	135,2	190,9	201,4	232,5	261,0	274,0	223,7	220,4	196,1	285,6	272,3	293,6
Kioskoak	278,8	315,2	344,2	284,0	246,9	243,3	184,8	204,0	177,9	147,1	136,2	148,2
Enpresa era Erakundeak (3)	130,9	119,9	110,4	145,3	162,2	193,7	206,6	216,8	216,9	178,0	160,1	238,6
Liburutegiak (4)	-	-	-	-	-	-	21,9	18,6	20,3	15,4	17,7	15,6
Argitaletxeak	25,3	26,6	32,5	24,6	18,8	11,8	12,2	-	-	-	-	-
Kreditu bidezko salmenta	542,8	541,7	485,0	445,0	489,0	422,8	408,4	379,6	360,6	200,6	325,3	282,1
Posta	116,2	122,1	101,8	140,9	96,4	108,7	131,3	100,0	66,9	62,8	61,2	100,4
Klubak	122,5	133,2	125,6	127,5	112,9	113,4	150,7	132,6	139,3	131,5	130,1	112,7
Internet	-	-	-	-	2,4	2,4	4,9	4,0	4,6	10,9	11,2	25,0
Harpidetzak	-	-	-	-	-	-	-	7,3	17,4	15,0	32,8	37,1
Telefono bidezko salmenta	-	-	-	-	-	28,3	14,6	47,1	78,1	92,5	90,7	105,8
Beste bide batzuk	42,2	57,7	67,1	67,1	63,5	14,2	29,2	78,9	104,8	191,5	116,9	106,5
<b>Guztira</b>	<b>2.112,0</b>	<b>2.220,0</b>	<b>2.165,0</b>	<b>2.236,0</b>	<b>2.351,0</b>	<b>2.362,0</b>	<b>2.431,0</b>	<b>2.529,0</b>	<b>2.606,7</b>	<b>2.674,6</b>	<b>2.792,6</b>	<b>2.881,6</b>

Datuak: Espainiako Editoreen Elkartearen Espainiako Federazioa. Txostena Liburuaren Barruko Merkataritza Espainian 2004.  
 [1] El Corte Inglés, Crisol, FNAC, Casa del Libro eta antzekoak, liburutegi-sareen artean sartzen dira. [2] Saltoki handien artean (2000. urtetik hipermerkatuak) sartzen dira Alcampo, Continente, Pryca eta antzekoak. [3] 1998 arte enpresa eta erakundeak erakunde publiko eta pribatuak banaketa zen. [4] Liburutegietarako salmenta 1999an hartu zen aparte lehenengoz.

Salmentei arreta jarrita neurriaren arabera, datuak oso interesgarriak dira. Beste maila batean, nabarmentzekoa da liburu-denda handietan salmentaren kalkulua ia 100.000 ale igo bada, liburu-denda ertain-handiek eta ertain-txikiek parametro antzekoei eutsi dietela. Liburu-denda txikietan bakarrik jaitsi dira salmentak.



10 taula. Liburuaren salmentaren egitura Espainiako liburu-denden sektorean

	Liburu-denda identifikatuak (1)	%liburu-dendak neurriaren arabera	Batez besteko salmenta liburu-dendako (BEZ gabe)	Salmenta estimatuak liburu-denda errolda edo identifikatuetan (BEZ gabe)	%Salmenta estimatuak liburu-denda errolda edo liburu-denda identifikatuetan salmenta estimatu osoarekiko
<b>1997</b>					
- Liburu-denda handiak	176	4,64	1.557,22	274.071,14	31,74
- Liburu-denda ertain-handiak	302	7,96	437,54	132.136,12	15,30
- Liburu-denda ertain-txikiak	596	15,70	215,16	128.236,75	14,85
- Liburu-denda txikiak	2721	71,70	58,30	158.629,33	18,37
Guztira	3.795	100,00		693.073,34	80,28
Liburu-denda bidezko salmentak				863.353,89	100,00
<b>2004</b>					
- Liburu-denda handiak	281	6,57	1.252,03	351.821,54	25,84
- Liburu-denda ertain-handiak	370	8,64	395,87	146.473,17	10,76
- Liburu-denda ertain-txikiak	781	18,25	195,42	152.620,80	11,21
- Liburu-denda txikiak	2848	66,54	50,12	142.755,70	10,48
Guztira	4.280	100,00		793.671,21	58,29
Liburu-denda bidezko salmentak				1.361.634,62	100,00

Oharra: (1) Neurriak ezagutzen ez zaien 744 liburu-dendak proportzioan banatu dira.

CEGALek egindako liburu-denden mapatik ateratzen denez, orokorrean, liburuaren pisua liburu-denda handi eta ertainaren negozio osoarekiko Espainian %80 eta %90 bitartean dago, bai zabaleran bai salmentan.

Beraz, ikusten da halako saltokietan liburu produktuan espezializatzea estrategiarako oinarrikoa dela, eta gainerako ondasun edo zerbitzuak guztiz osagarriak.

Liburu-denda txikien multzoak, liburuaren salmentaren ehunekoa osoarekiko txikiagoa da (ia %50, 2000. urtean bezala), beherako joerarekin liburu-dendaren neurria txikitu ahala.

**Kontsumitzaileak** liburura heltzeko sistemak ezberdinak izan daitezke. Pertsonen %44k erosi egin zuten, %23,1i utzi egin zioten, %20,9ri oparitu, %6,5 familiarena da edo etxean dago, %5,3k liburutegi batean eskuratu zuen eta %0,2k Interneten jaitzi zuen.

Liburu-erosleen tasa guztira %51,7koa da, horietatik %28,9k bakarrik erosi zituzten liburuak ez testukoak, %9,1ek testuliburuak bakarrik eta %13,8k liburu mota biak. Liburu

salmenta biztanleko Espainian azken urteetan hazi egin da apur bat (termino arruntean), 2000ko 62,4 €/biztanle izatetik 2004an 66,7€/ biztanle izatera.

## **ARGITALPEN EKOIZPENA: IZENBURUAK ETA EUSKARRIAK**

Espainian **argitaletxeek** 2005ean 69.598 izenburu argitaratu zituzten, 2004koaren aldean %2,6 gehiago. Euskadin urte horretan bertan 3.515 izenburu argitaratu ziren, eta 2001etik hasita goranzko joera bete da.

Ale kopurua ere handitu zen 2004tik 2005era, %3,5, aleak guztira 321.469.155 direla. Urteko ekoizpena Euskadin 8 milioi ale ingurukoa da, aurreko urtekoaren aldean %8,1 gehiago. Hazkunde horrek neurri batean berdindu egiten du aurreko urteko jaitsiera.

Azpitarratzekoa da argitaletxeen %25,6k papera ez den beste euskarriren batean argitaratzen dutela, edizio mota horrek fakturazioaren bolumen osoaren %9,8 osotuz. Beste euskarriren batean argitaratzen duten argitaletxeetatik %77,8k CD-Rom/CD-I euskarria erabiltzen dute, %35,7k DVD, %19,9k *on-line*, eta hortik beherako proportzioan beste euskarri batzuetan argitaratzen dutenak.

**Banaketa**-enpresek 2005ean 266 milioi liburu-ale mugitu dituzte, aurreko ekitaldian baino %0,5 gehiago. Zerbitzatutako aleak 2004an baino gehiago izan ziren (%1,6), itzulitakoak, aldiz, gutxiago (-%3,5). Esandakoaren arabera, saldutako aleak (zerbitzatutako liburuak ken itzulitakoak) 2005ean 158 milioi inguru izan ziren. Mugitutako 266 milioi aleak saldutako 158 milioiekin lotuz gero, ondorioa da ale bat saltzeko 1,7 ale mugitu behar izan direla (aurreko urteko ratio bera).

### **3.2. TESTULIBURUAREN LEKUA SEKTOREAN**

Estatuan, unibertsitatekoa ez den testuliburuari dagokion gaiaren **edizioa** katalogoko izenburuen %15,2 da, argitaratutako izenburuen %22,5, ale-argitalpenaren %20,5 eta barruko merkatuko fakturazioaren %23,8. Kopuru horietan sartuta daude Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta liburu eta material osagarriak. Gogoratu behar da, euskal edizioetan gertatzen den bezala, zatirik handienak Lehen Hezkuntza eta DBHkoak direla.

Euskadin, unibertsitatera arteko testuliburuak izenburuen %27,2 dira, Espainian %22,5. Lehen Hezkuntza eta DBH bakarrik kontuan hartuta, portzentaia %17,5era jaisten da. Ale kopuruari erreparatuta, derrigorrezko hezkuntzaren eragina testuliburuaren osoan are handiagoa da (%25,8), testuliburu ale-kopuru osoaren aurrean betetzen duenaren aldean (%36,4). Azkenik, testuliburuaren fakturazioa fakturazio osoaren %34,9 da Euskadin, eta derrigorrezko hezkuntza bakarrik kontuan hartuta %23,2.

**11 taula. Testuliburuaren portzentaia edizio osoarekiko 2005ean**

	<b>IZENBURUAK</b>	<b>ALEAK</b>	<b>FAKTURAZIOA</b>
ESPAINIA	%22,5	%20,5	%23,8
EUSKADI	%27,2	%36,4	%34,9
Derrigorrezko Hezkuntza EUSKADIN	%17,5	%25,8	%23,2

**Testuliburu ez unibertsitarioa merkaturatzeko bide nagusia Espainian eta Euskadin liburu-dendak dira, %48,2 eta %40,8 hurrenez hurren. Azken urteotan horien pisua asko jaitsi da, Euskadin batez ere, 2002an %59,4 izatetik 2005ean %40,8 izateraino.**

Espainian gainerako bideak asko aldatu ez badira ere, Euskadin bai. Alde batetik lehenago esan da liburu-denden pisua jaitsi egiten dela; bestetik, enpresa eta erakundeak eta liburu-denden sareak gehitu dira gehien, edo, beste irakurketa bat eginez, liburu-denden sareek eta editoreek euren pisua handitu egin dute testuliburuaren merkaturatzean, liburu-denden kaltean.

12 taula. Testu ez unibertsitarioa merkaturatzeko bideak Espainian

	2001	2002	2003	2004	2005	2005-2004
<b>Testu ez unibertsitarioa guztira (milioi €)</b>	<b>546,86</b>	<b>624,58</b>	<b>680,21</b>	<b>689,58</b>	<b>698,84</b>	<b>8,99</b>
<b>Guztira (portzentaia)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Liburu-dendak	53,4	54,0	54,2	48,5	48,2	-0,3
Liburu-denden sareak	13,8	13,6	13,2	13,2	13,9	0,7
Hipermerkatuak	11,7	12,7	13,3	15,4	14,2	-1,2
Enpresa eta erakundeak	20,4	15,7	14,0	16,5	17,8	1,3
Gainerako bideak	0,7	4,0	5,3	6,3	5,9	-0,4

13 taula. Testu ez unibertsitarioa merkaturatzeko bideak Euskadin

	2002	2003	2004	2005	2005-2004
<b>Testu ez unibertsitarioa guztira (milioi €)</b>	<b>23,21</b>	<b>21,13</b>	<b>28,32</b>	<b>30,09</b>	<b>1,77</b>
<b>Guztira (portzentaia)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Liburu-dendak	59,4	52,1	44,8	40,8	-4,0
Liburu-denden sareak	12,0	13,7	13,0	19,0	6,0
Hipermerkatuak	13,0	10,3	12,3	11,6	-0,7
Enpresa eta erakundeak	10,6	23,6	26,2	26,9	-0,7
Gainerako bideak	5,0	0,4	3,7	1,7	-2,0

**Banantzaileek** emandako datuei dagokienez, liburuen fakturazioa antzeko proportzioetan banatzen da testuliburuetan eta beste gai batzuetan; azken horiei osoaren ehuneko apur bat handiagoa dagokie. Beste produktu batzuk osoaren %1,7 baino ez dira. Beste ondorio bat da editoreek erabiltzaileari zuzenean saldutakoaren portzentaia Euskadin Estatuko gainerakoan baino handiagoa dela.


14 taula. Fakturazioa 2001-2005 (% bertikalak). Liburuak.

	2001	2002	2003	2004	2005	Aldea* 2005-2004
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	-
Testuliburuak (ez unibertsitarioa)	96,6	97,3	47,1	47,9	47,9	0,0
Beste gai batzuetako liburuak			50,3	49,9	50,4	0,5
Aldizkako Argitalpenak	0,8	1,3	2,0	0,3	0,3	0,0
Atipikoak	2,6	1,4	1,6	1,9	1,4	-0,5


Testuliburuaren eta **liburu-denden** arteko loturan, zera da garrantzitsua: eskolako liburuaren pisua liburuaren salmenta osoarekiko liburu-denda txikietan handiagoa dela (%30,7) ertain eta handietan baino (%15 eta %20 bitartean), hurrengo grafikoetan ikusten den bezala:

**4 grafikoa. Liburu-dendako liburu-salmentaren osaera. 2000-2001<sup>1</sup>-2004<sup>2</sup>. Neurrien arabera.**


**A) Liburu-denda handiak (2000-2001 eta 2004)**



**B) Liburu-denda ertain-handiak (2000-2001 eta 2004)**




**C) Liburu-denda ertain-txikiak (2000-2001 eta 2004)**



**D) Liburu-denda txikiak (2000 eta 2004)**

<sup>1</sup> Unibertsitateko liburuetan 2000 eta 2001eko datuek zientzia-teknika arloko liburuaren salmeta ere jasotzen dute.

<sup>2</sup> Galdera hau ez zen egin 2002 eta 2003ko galdeketetan.



**Kontsumitzaileko** urtean batez beste 12 liburu erosi direla kontuan hartuta, esan beharra dago testuliburu ez direnen salmenta bakarrik zenbatuz gero batez bestekoa 9 dela. Beraz, erosten diren liburuen %25 testuliburuak dira.

Esatekoa da ere liburuak batez ere liburu-dendan erosten direla (%55), hala ere bigarren bidea eskola/AMPA/ikastetxeak dira (%39,4).

### 3.3. EUSKARA SEKTOREAN

Euskaraz argitaratzen duten 112 argitaletxe pribatu eta 36 erakunde publiko daude; guztira, beraz, 148. Argitaletxe pribatuen artean, 71 Euskadiko Autonomia Erkidegokoak dira, 7 Nafarroako Foru Erkidegokoak, 9 Iparraldekoak eta gelditzen diren 25 argitaletxeek beste Autonomia Erkidegoetan dituzte egoitza sozial nagusiak, batez ere Madrilen eta Katalunian.

2005. urtean, 1.893 titulu argitaratu ziren euskaraz, horietatik %85,4 EAEn. Euskadiko Argitalpenen Barne Merkatuaren ikerketaren arabera, Euskadiko argitalpen guztien %46 euskaraz argitaratzen da.

**Gaien arabera, euskararen garrantzia ere aldatu egiten da; umeentzako eta gazteentzako argitaratutako liburu guztien %89,8 euskarazkoak dira, unibertsitatekoak ez diren testuen %66,9 eta hiztegi eta entziklopedia guztien %62,1 euskaraz argitaratzen da. Euskadin, katalogoetako titulu-kopurua %44,3 handitu egin da azken bost urtetan; aitzitik, euskarazko titulu etako katalogoa %17,9 besterik ez da handitu. 2005eko titulu guztien artean, lehen hezkuntzakoak eta DBHkoak euskaraz argitaratutako guztiaren %25,4a dira.**


Bestalde, Euskadiko fakturazio guztiaren %37,5 euskarazko argitalpenek fakturatzen dute.

Unibertsitatekoak ez diren testuliburuaren ehunekoa %70,4ra igotzen da, euskarazko argitalpenen fakturazio guztiaren %35,9.


Argitalpen-hizkuntzaren arabera liburu-denden mapak bildutako liburuen salmentari buruzko informazioak hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten autonomia erkidegoei besterik ez die erreferentzia egiten: Balearrak, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Galizia, Nafarroa eta Euskadi. Aipatu Erkidego guztiak batuta, hizkuntza koofizialetan saldutako liburu-kopurua %25 ingurukoa da, 2004. urtean liburu-denda mota guztietako salmenten arabera.

5. grafikoa. Hizkuntzaren araberako salmenta ehunekoetan, hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten erkidegoetako liburu-dendetan. 2000-2003 urteak. Tamainaren arabera.


**A) Liburu-denda handiak (2000-2004 urteak)**




**B) Liburu-denda ertainak-handiak (2000-2004 urteak)**



**C) Liburu-denda ertainak-txikiak (2000-2004 urteak)**



#### D) Liburu-denda txikiak (2004 urtea)



Oharra (\*): *Balearrak, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Galizia, Nafarroa eta Euskadi.*

**Argi eta garbi ikusten da gero eta liburu-denda txikiagoa izan gaztelania ez den hizkuntza ofizialetako liburuak orduan eta gehiago saltzen direla.**

**Erosleen %94,4ak gaztelania** hautatzen du irakurtzeko hizkuntza gisa. Euskarazko liburuak %3,5ak besterik ez du erosten. **Hala ere, euskaldunen irakurtzeko ohiko hizkuntza euskara da %3,1ean.** Horren ondorioz, euskaraz irakurtzen duena da euskarazko liburuak erosten dituenak. Azpimarratu behar da Gipuzkoan euskarazko liburu gehiago saltzen dela Bizkaian eta Araban baino.

#### LABURPEN-KOADROA

- Datu kuantitatibo guztiak liburu-sektorean egindako ikerketetakoak dira.
- Oro har, Euskadiko liburu-sektorearen industriako balio-kate guztian enpresak ertainak-txikiak dira: argitaletxeak, enpresa grafikoak, banaketa, liburu-dendak...
- 2004ko eta 2005eko fakturazioa Euskadin bakarrik aldatu da negatibora (%4,5). Era berean, Euskadiko fakturazioaren ehunekoa txikitu egin da Espainiarekin konparatuz gero.
- Nahiz eta liburu-dendak liburuak saltzeko gune nagusiak izan, nabarmen jaitsi da gune horien salmenta espezifikoa, batez ere, Euskadin: 2004an %59,4 saltzetik 2005ean %40,8 saltzera iritsi da.
- Umeentzako eta gazteentzako argitaratutako liburu guztien %89,8 euskarazkoak dira, unibertsitatekoak ez diren testuen %66,9, eta hiztegi eta entziklopedia guztien %62,1 euskaraz argitaratzen da.
- Bestalde, Euskadin, gaztelaniazko katalogoetako titulu-kopurua %44,3 handitu egin da azken bost urtetan; aitzitik, euskarazko titulu-entzako katalogoa %17,9 besterik ez da handitu.
- Gero eta liburu-denda txikiagoa izan, orduan eta liburu gehiago saltzen da euskaraz.



## **4. SEKTORE PUBLIKOA ETA HAREN LOTURA TESTULIBURUA TRATATU ETA EROSTEAREKIN**

Hiritarrei hezkuntza unibertsala bermatzeko zuzenbide-estatu bat sortzea planteatzen den momentuaz gero, sektore publikoa berebiziko eragile bihurtzen da hezkuntzarako eskubidea errealitate bat izaterakoan eta beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak lortzerakoan, banatzerakoan edo kudeatzerakoan. Beste era batera esanda, administrazioaren jarduerak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dute, eta administrazioak ulertu behar du pertsonen heziketaren arabera ere desberdintasunak daudela oinarrizko arauak eta printzipioak betetzerakoan, bai derrigorrezko hezkuntzan bai aukerazko derrigorrezko hezkuntzan (ikastetxe pribatuak eta itundutako ikastetxeak), bai eta post-derrigorrezko hezkuntzan ere (batxilergoa, unibertsitatea, lanbide heziketa...).

Beraz, sektore publikoak hezkuntza publikorako eskubidea arautzen eta bermatzen du, eta, era berean, gizartearen desberdintasunetan esku hartzen du zuzenean (zerga sistemaren eta birbanaketa-politika bidez) eta zeharka, lortu ahal izango ez zituztenen familiei aipatu baliabideak emateko, hornitzeko eta egi bihurtzeko. Testuliburuak, ikerketa honetan guztian zehar aztertuko den bezala, derrigorrezko hezkuntzarako eskubidea lortzeko nahitaezko baliabide-materialietako bat izan da, eta izaten jarraitzen du. Hortaz, administrazioa testuliburuak emateaz arduratu behar da; hala adierazten da zenbait estatuk egun aurrera eramán dituzten ekimenetan.

### **EUSKO JAURLARITZAREN ESKUMENAK ETA HORIEN EBOLUZIOA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailaren Administrazio eta Diru-bideen zuzendaritzak ikasketetarako laguntza batzuk proposatzen ditu unibertsitate-mailakoak ez diren ikasleak eskolatzeko, alegia, derrigorrezko hezkuntzarako laguntzak (Lehen Hezkuntzatik hasita), batxilergorako, prestakuntza zikloetarako eta Hezkuntza sailak onartutako titulu akademiko ofizial bat lortzen den ikasketetarako. Eskolatzeko laguntza horiek honela banatzen dira:

Hezkuntzarako laguntzak: Zuzeneko laguntzak.

Joan-etorrietarako edo egoitzarako laguntzak.

Eskola-jantokirako laguntzak.

Laguntza osagarria.


Material didaktikorako laguntza.

## **PROGRAMAREN ETA TESTULIBURUAK LORTZEKO OHIKO LAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA**

Programa berrira adskribitzea bateragarria da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak material didaktikoa lortzeko eskaintzen dituen beste laguntza batzuekin, eta, batez ere, eskolako materiala lortzeko eskolatzeko-laguntzekin. Sailak aipatu azken laguntzen bidez berremate kanonaren kostua (programan adskribitutako familiei ordainarazten zaien diru-kopurua liburuak mailegatzeagatik eta liburu berriak erosteko gastuengatik duten kostua) esplizituki kitatu nahi du gehien behar duten familiei laguntzeko. Programan ez adskribituz gero, beraz, ikasleak ez du Sailaren inolako laguntzarik jasotzeko aukerarik izango eskolako materiala lortzeko.

Programan parte hartzen bada, ordea, ikasleak ezin izango du Hezkuntza Ministerioak, edo sailekoa ez den edozein erakunde publiko edo pribatuk eskaintzen duen inolako laguntzarik jaso material didaktikoa erosteko.

Hortaz, testu liburuen eta material didaktikoaren Kudeaketa Solidario eta Zuzenaren programa abian jartzean, praktikan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei bi bide bateraezin proposatzen zaizkie:



## **5. EREDU BIDERAGARRIAK ETA HORIEN APLIKAZIOA ZENBAIT ERREALITATETAN**

Kapitulu honetan, zehatz-mehatz azaltzen dira testuliburuak eta material didaktikoa lortzeko laguntza publikoen zenbait eredu teoriko, eta horiek aplikatzeko kasu pragmatikoenak sakon aztertzen dira.

### **5.1. EREDU BIDERAGARRIAK**

#### **Gutzizko doakotasuna**

Eredu ideal batean, Estatu edo eskumeneko Administrazioak arduratu beharko luke hezkuntzako gastu guztiez (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikuluan eta Espainiako Konstituzioko 27.4. artikuluan derrigorrezko eta doako oinarrizko hezkuntzari buruz xedatutakoari jarraiki), bai eskolatzeko kostuez, bai kostu materialez (testuliburuak, koadernoak, paper-gauzak...), bai garraioaz, janariaz...

Hezkuntzaren gutzizko doakotasunaren kontzeptuak berak arazo bat planteatzen du, izan ere, sektore publikoak ordaindu beharko lituzkeen elementu-kopurua oso handia da; eskola-eraikuntzetatik eta behar adina ekipamenduak lortzetik hasi eta ikasleen jantziak eta etxeko informatika ekipoa ordaintzeraino. Edozein modutara ere, doakotasun eredu ideal horren arazo nagusia oinarrizko 3 puntutan laburtu ditugu, baina garrantzizkoa litzateke argitzea ea doakotasun unibertsala komeni zaigun edo zuzenagoa ez ote den ikaslearen familiaren errentaren arabera laguntzak ematea:

1. Beharrezkoa da zentzuzko hezkuntza-prozesua behar bezala aurrera eramateko beharrezko guztia definitzea (zergatik ordaindu behar diren testuliburuak eta ez boligrafoak, arkatzak, motxilak...).
2. Beharrezko guztiaren kostua kalkulatu behar da (kalkulatzeko arazoa handiagoa da testuliburuak, esaterako, prezio librea dutelako).
3. Hezkuntzarako materialaren jabe nor den adierazi behar da (Administrazioa, ikastetxea, familiak...).

Testuliburuaren kasuan, arazo bat sortzen da ikasketa-planetakoko titulu-hautatzaileak material generikoa sortzeko (osasun-sisteman egiten den moduan) ezintasunarekin topo egitean; izan ere, material generikoa sortzen ez bada, katedra-askatasunaren aurka

joateaz gainera, ikasketa-planen edukiaz arduratzen direnek ez dute aukera osoa material egokiena hautatzeko.


Doakoa izatea nahi dugun horretan zer barne hartzen den definitzea arazo bat dela esan dugunez, ikerketa honetan guztizko doakotasuna nola ulertzen dugun definitu behar dugu. Hortaz hemendik aurrera, guztizko doakotasuna ulertuko da ikasleari ikasketa planetan ageri diren testuliburu eta material didaktikoaren kostu osoa ordaintzen zaionean (hau da, ikastetxearen ikasketa planen proiektuan ageri den materiala), eta ikaslea material horren jabe egiten denean. Mailegatze-eredua guztizko doakotasun eredutik aldentzen dela uste dugu, ikaslea ez delako diruz lagundutako materialaren jabea.

**Guztizko doakotasun irizpide idealetik at, gehien erabiltzen diren bi eredu daude: zuzeneko laguntza eta mailegua.**

### **Zuzeneko laguntza / Liburu-txekea**

Zuzeneko laguntzaren eredia testuliburuaren gastu osoa edo partziala ordaintzean datza. Beken ereduak behar gehien dutenei konpentsatzeko ohiko diru-laguntzak dira, eta familien bizilekuaren eta erosteko ahalmenaren arabera ematen dira; beraz, errentaren birbanaketa-funtzioa betetzen da hezkuntzaren eskubiderako berdintasunaren alde. Testuliburuak erosteko zuzeneko laguntza, ordea, neurri unibertsala da estatuko hainbat autonomia erkidegotan derrigorrezko hezkuntzarako, eta aipatu guztizko doakotasun logikan barne hartzen da (hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa izan behar da, beraz, baita testuliburuak ere; hezkuntzarako lanabes beharrezkoak izaki, doakoak izan behar dira, edo, gutxienez, diru-laguntza kopuru handiak emango dira horiek ordaintzeko onuradunaren errenta kontuan izan gabe).

Zuzeneko laguntza bi motatakoa egin daiteke: materiala erosterakoak izandako gastu osoa itzultzea (gerora faktura aurkeztu behar da), edo, liburuak erosi aurretik liburu-txekeak edo liburu-bonoak deritzen formulen bidez erostea; kasu horretan, aurretik ezartzen da liburu-gastuaren guztira. Azken eredu hori da, adibidez, Madrilgo, Murziako eta Valentziako Autonomia Erkidegoek jarraitzen dutena; enpresa pribatu batek txekeak ematen ditu haren kide diren dendetan txeekeen truke liburuak lortzeko.



Azpimarratu behar da, kasu guztietan, liburu-txekea materiala lortzeko modu bat besterik ez dela, hau da, lehen urtean gurasoak liburu-dendetara joaterakoan maileguaren modalitatea ere erabiltzen dela, eta ondoren, erositako liburu horiek 4 urtez berrerabiliko direla. Alegia, liburu-txekea zuzeneko laguntzan ez ezik, maileguaren modalitatean ere erabili daiteke.

## Mailegua

Zuzeneko laguntza familientzako edo barne hartzen diren kolektiboentzako (familia behartsuenak edo hiritar guztiak kontuan hartu daitezke) "funtsa ez itzultzeko" laguntza ekonomikoak —zuzeneko laguntzak— ez bezala, maileguaren ereduak **hurrengo ikasturteetan zehar baliabideak berriz erabiltzea** proposatzen du.

**Bi ereduaren arteko desberdintasun nagusia testu liburuen jabetza da, izan ere, lehenengo ereduaren ikasleak dira liburuen jabe, eta oraingo eredu honetan ordea, administrazioarenak dira liburuak (ikastetxearen gestioari esker); ikasturte amaiera bakoitzean, ikastetxeek liburuak biltzen dituzte, gero, berriz erabili ahal izateko, eta modu horretan, Eusko Jaurlaritzak ezarritako diru-kopuru bat jasotzen du ikastetxeak.**

Abiapuntua desberdina da, eta arazo zehatz batzuk planteatzen dira:

1. Ikasleek materiala behar bezala erabiltzea eta zaintzea, eta, horren ondorioz,

liburuaren erabilera mugatua izan daiteke (ezingo da azpimarratu edo liburuetan idatzi...).

2. Liburu guztiak ez dira berdin zaintzen, hortaz, horien egoera ere desberdina da.
3. Etxeetan dauden liburu-kopurua murrizten da; kontuan izan behar da Espainiako biztanleriaren ia ehuneko berrogeita hamarrak liburuaren batekin duen harremana eskolako liburuekin dela.
4. Mailegu-sistemaren logistika- eta kudeaketa-gastuak (liburuak biltzea, inbentarioak egitea, liburuak ematea eta jasotzea...), Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Solidario eta Zuzenaren Programaren kasuan, ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenak emandako komisioari esker ordaintzen dira: Eskola-kontseiluari esker.

Maileguaren ereduak ere liburuak berritzea eskatzen du bi kasutan: 4 urteren ostean, edo liburuaren egoera tamala izatean edo hura galtzean, liburu berri bat behar da. Eusko Jaurlaritzak estimatutakoaren arabera, urteko liburu-berritze tasa %10ean dago (hau da, urtero liburuaren %10a ordezkatzen da). Hasiera batean ikasleen gurasoek egoera tamalean dauden liburuak ordaindu behar dituzte, ikasleak gaizki erabiltzeagatik edo galdu izanagatik.

Azkenik, kanon bat ezartzen da ikasleen gurasoek ikasturtero liburu berriak erosteagatik izandako gastuen laurdena ordaintzeko. Kanon hori, aipatutako hezkuntza-maila bakoitzean, kopuru jakin baten arabera ezartzen da. Adibidez, eta txosten hau idatzitako data kontuan izanda, lehen hezkuntzako lehen zikloan 28 euro ordaintzen zaie ikastetxe guztiei. Hori guztia kontraesan bat da kontuan hartzen badugu irakurketa liburu eta liburutegien lege berriaren xedatutako testuliburuaren prezio librearen irizpidea, bai eta indarrean dagoen jabetza intelektualari buruzko araudia.

Praktikan, aipatu kanonak testuliburuaren alokairu-prezioa kitatzen du, liburuak ikastetxearenak izaten jarraitzen dutelako.

## 5.2. EREDUEN APLIKAZIOA ZENBAIT ERREALITATETAN

### ESPAINIA

Erkidegoa	Laguntza eredia	Aplikatze-eremua	Oharrak
Andaluzia	Mailegua	Derrigorrezko hezkuntza	Familiak "liburu-txeke"-en bidez erosten dituzte liburuak
Aragoi	Mailegua	Derrigorrezko hezkuntza	Ikastetxeek aurrekontuaren idazpenen arabera erosten dituzte liburuak
Asturias	Jabetza (Zuzeneko laguntza Urteko Errentan)	Lehen Hezkuntza eta DBH. 60.000 baino errenta txikiagoa duten familiak	90€ Lehen Hezkuntzarako 130€ Bigarren Hezkuntzarako
Balearrak	Mailegua	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak	Udalek ere laguntzak ematen dituzte
Kanariak	Mailegua	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	Beka osagarriak (Hezkuntza Saila + Irletako Kabiloak)
Kantabria	Jabetza Doakotasuna	Lehen Hezkuntzako 1., 2. 3. eta 4. mailak + DBH 1	Gehienez 100€ Lehen Hezkuntzan eta 150€ DBHn.
Gaztela-Mantxa	Mailegua	Derrigorrezko hezkuntza	Familiak "liburu-txeke" edo bonoen bidez erosten dituzte liburuak
Gaztela eta Leon	Jabetza Zuzeneko laguntza	Derrigorrezko hezkuntza 36.000 baino errenta txikiagoa duten familiak	105€ Lehen Hezkuntzarako 135€ DBHrako
Katalunia	Mailegua	Fase esperimentalak (Derrigorrezko Hezkuntza)	Ikastetxeek idazpenen arabera erosten dituzte. 895 ikastetxe daude adskribituta
Euskadi	KANONA Mailegua	Lehen Hezkuntzako 1. zikloa, fase esperimentalak.	Familiak erosi, ikastetxeek ordaindu. Berremate Kanona (prezio publikoak zikloa). Arabako Foru Aldundiak laguntzak ematen ditu.
Extremadura	Mailegua	Derrigorrezko hezkuntza. Familia ugariak eta ahalmen urriko ikasleak.	Laguntzak: Hezkuntza Sailak, Badajozko Aldundiak eta Udalek
Galizia	Mailegua	Derrigorrezko hezkuntza.	Programaren kostua administrazioaren ardura da
Madril	Jabetza Liburu-txekea (zuzeneko laguntza)	Derrigorrezko hezkuntza. Eskatzen duten familiak.	83€ Haur Hezkuntzan. 103€ Lehen Hezkuntzan. 123€ DBHn
Murtzia	Jabetza Zuzeneko laguntza	Derrigorrezko hezkuntza. Eskatzen duten familiak.	Hainbat udalek mailegua ezartzen dute
Nafarroa	Jabetza Zuzeneko laguntza (elkar ordaintzeko laguntza)	Ezarretakoa baino errenta txikiagoa duten familiak	106€ Lehen Hezkuntzarako, 130€ DBHrako
Errioxa	Mailegua (liburu-bonoak erabiltzea aurreikusten da)	Derrigorrezko hezkuntza	Familiak liburuak erosi eta ikastetxeek kostua itzultzen die. Programaren kostua administrazioaren ardura da. Lehen

			Hezkuntzako lehen ziklorako laguntzak daude.
Valentziako Erkidegoa	Liburu txeketa	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak	Enpresa pribatuek funtsak gestionatzen dituzte. Zenbait udalek testuliburuak erosteko diru-laguntzak ematen dituzte.

Iturriak: Los libros de texto en las comunidades autónomas 2006-2008. CEAPA. Gratuidad de los libros de texto en las Comunidades Autónomas. 2007-2008. CEAPA. Comparativa de los sistemas de gratuidad 2007/2008. ANELE.



## **GALIZIA**

Txosten hau idazteko erreferentzia garrantzitsua izan da Santiago Compostelako Unibertsitateko *Unidade de Psicoloxia do Consumidor e Usuariok* Asociación Galega de Editores elkartearekin batera egindako "Viabilidade do Sector Editorial en lingua Galega tra la introdución da modalidade de Gratuidade do libro de texto mediante o sistema de préstamo" izeneko ikerketa. Galiziako eta Euskadiko kasuek antzekotasunak eta desberdintasunak dituzte, baina horiek adierazgarri izaki, beharrezkoa da erkidego bakoitzak bere txostena izatea, bai eta Euskadik ere; horregatik, proposamen galegoa behin eta berriz aztertu dugu, eta orain erreferente eta abiapuntua izan da txosten hau egiteko.

Antzekotasun nabarmenak honako puntu hauetan daude:

- Biztanleria-kopurua (bietan bi milioi eta erdi biztanle inguru daude)
- Bertako hizkuntza izatea, liburuen ekoizpena eta kontsumoa bi merkatutan banatzen duena; lotuta dauden bi merkatu dira, baina desberdinak. Galizian, galegoz argitaratutako liburu-kopurua ia %29ra iritsi zen 2005ean, Euskadin ordea, %20 izan zen euskaraz argitaratutakoa urte berean.

Bestalde, bi erkidegoetako desberdintasunik nabarmenena maileguren programan dago. Galizian 2003an presaka ezarri zen sistema hori PSG-BNG koalizioak gobernu berria osatu zuenean; Euskadin, ordea, orain hasi gara ezartzen, poliki-poliki, 2007-2008 ikasturtean, 2006-2007 ikasturtean esperientzia pilotu bat probatu ondoren.

	<b>Galizia</b>	<b>EAE</b>
<b>Biztanleria</b>	2.700.000	2.500.000
<b>Liburu-saltzaileen Federazio Nazionala</b>	Bai	Ez
<b>Elkartutako liburu-dendak</b>	300+/-	Probintzietako gremioetan 100 elkartu dira
<b>Bertako hizkuntzaren garrantzia argitaratzerakoan</b>	Liburuen %28,71 (2005)	Liburuen %20,37 (2005)
<b>Testuliburuaren beharra</b>	Altua (biztanleria sakabanatuagoa, salmenta-gune txikiagoak)	Erdi-mailakoa
<b>Maileguaren programa</b>	Ezarrita (2003az gero)	Pixkanaka ari da ezartzen (2007/2008)
<b>Aurkeztutako beste aukera batzuk</b>	Bai, Xuntari	Ez

\* Argialetxeek guztira saldutakoaren %23,4 Lehen Hezkuntzako eta DBHko testuliburuak dira. (2005, iturria: AGE)

## **EUROPA**

Labur bada ere, interesgarria da ikustea Europar Batasuneko herrialdeek zer-nolako laguntza-ereduak erabiltzen dituzten. Hala ere, kontuan izan behar da, lehenik eta behin, estatuetak lurralde antolakundeen arabera ere desberdintasunak izaten dituztela (landerretan, departamentuetan, erkidegoetan, eskualdeetan...), eta jakin, jabetza-laguntzak gutxitu egin direla maileguaren eredia ezarrita zegoen toki batzuetan.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak argitaratutako Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazioaren Zentroko Ikasketak eta Ikerketa Arloak egindako dokumentuko informazioaren arabera, honako hauek dira erabili diren modalitateak:

### *Frantzia*

Lehen Hezkuntzan (6-11 urte), udalek liburuak mailegatzen dizkiete ikasleei, eta ikasturtea amaitzerakoan, ikasleek liburu horiek itzuli behar dituzte. Behe mailako Bigarren Hezkuntzan edo Collège-an (11-15 urte), Estatuak finantzatzen ditu ikastetxeek ikasleei mailegatzen dizkieten hainbat testuliburu. Nahiz eta Frantziak gerora aldaketak egin dituen, **maileguaren eredia** ezarri ostean **argitaletxeen kontzentrazioaren** adibide nabarmena da.

### *Alemania.*

Egoerak desberdinak dira **Land-en arabera**, antolakuntza federala baitu. Bavaria, Berlin, Bremen, Hanburgo, Hesse eta Sajoniako Länderretan, sistema nagusia ikasleei liburuak mailegatzea da, eta ikasturtea amaitzerakoan, ikasleek liburuak itzultzen dituzte. Länderren bigarren blokean ere ikasleei liburuak mailegatzen zaizkie, baina familiek liburu-kostuen zati bat ordaintzen dute; zati hori Länderraren arabera aldatu egiten da, baina, gutxi gora behera, kostu guztiaren heren bat izaten da familiek ordaindu behar dutena (Behe Sajonia, Branderburgo, Meeckl-Pom, Renania-Westfalia, Sajonia-Anhalt, Schelessw-Holst eta Turingia). Azkenik, Länderretako hirugarren blokean, liburuak erosteko familien diru-sarreren araberako bonoak ematen dira (Baden-Wurtem, Renania-Palatinado eta Sarre).

### *Austria.*

**Zuzeneko laguntza** da hautatu duten modalitatea: testuliburuaren kostuaren %90 Estatuak ordaintzen du eta %10 familiek.

*Belgika.*

Lehen Hezkuntzan (6-12 urte), ikasleek ikasketa-planeko oinarrizko materiala **mailegatz**en dute, eta ikasturtea amaitzea, material hori itzuli behar dute. Bigarren Hezkuntzan (12-18 urte), liburuak mailegatzeko sistema bat ezarri da, ikasleek liburuen prezioaren ehuneko bat ordaindu beharra izaten dute, %20 eta %40 artean, kasuaren arabera.

*Finlandia.*

Oinarrizko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, finantzazio publikoari esker, testuliburuak **jabetza**-laguntzen bidez ordaintzen dira. Hala ere, ez dago inolako finantzaziorik Batxilergoan.

*Italia.*

1998ko erreforma baino lehenago, Lehen Hezkuntza guztiz finantzatzen zen, nahiz eta Bigarren Hezkuntzan, oro har, finantzaziorik ez izan. Hala ere, laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera zegoen, familien diru-sarreraren arabera. Hezkuntzan 1998an izan zen erreformaz gero, Lehen Hezkuntzako liburuak doakoa izaten jarraitzen dute. Bigarren Hezkuntzan, ordea, tokian tokiko agintek testuliburuaren prezioa guztiz murriztu edo murrizketa partzial bat ezarri dezakete, betiere, familiek eta ikasleek baldintza jakin batzuk betetzen badituzte, batik bat baldintza ekonomikoak.

*Luxenburgo.*

Derrigorrezko Hezkuntzan finantzazio publikoari esker, guztia ordaintzen zaie, baina Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzan ez dago finantzazio hori. Hala ere, eskolako materiala erosteko laguntzak daude.

*Herbehereak.*

Lehen Hezkuntzan, ikastetxeek ikasleei liburuak doan mailegatzten dizkiete. Bigarren Hezkuntzan, testuliburuak familiek ordaintzen dituzte, baina Estatuak diru-laguntzak ematen ditu, familien diru-sarreraren arabera.

*Erresuma Batua.*

Ikastetxeek **mailegu-sistemaren** bidez ematen dizkiete testuliburuak ikasleei, eta gero, ikastetxeari itzultzen dizkiete liburuak. Kasu honetan, eztabaida sozial bat sortu da liburu berriak dituzten ikasleen eta mailegatutako liburuak dituzten ikasleen arteko harremanen

inguruan.

### **BESTE MAILEGU-EREDU BATZUK: antzinako SESBetik hasi eta Armenia eta Lesothoraino**

Nahitaezkoa da ikastetxeetan material didaktikoaren funts bat sortzea ikasleek materiala urteetan zehar erabili ahal izan dezaten. Ideia hori praktikan jarri da hainbat toki eta aurreko mendeko garaitan. Ekimenaren aitzindari Sobietar Batasuna izan zen maileguaren figura barneratzen —nahiz eta lurraldean bertan nabarmen desberdin aplikatu— liburuak 3-4 urtez erabiltzeko. Ikasleak doan jasotzen zuen testuliburuak ikasturtean zehar erabiltzeko, eta ikasturte amaieran, itzuli egiten zuen beste ikasle batek erabiltzeko.

Nahiz eta maileguaren ereduak Estatuari desabantailak sortu argitalpenak kontrolatzeko eta hitzeko ordainketen oztopo pedagogikoak gainditzeko, estatuak ikasle guztien testuliburuak finantzatu ahal izaten zituen, eta, aldi berean, hala nola ere, bigarren hezkuntzako ikastetxeak ikasgai teknikoetan espezializatzea lortu zuten, derrigorrezko lehen hezkuntzatik haratago, hautazko ikasgaietarako testuak argitaratzen zirelako.

Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna desagertu zenean eta estatu berriak sortu zirenean, nahitaez aldaketak egon ziren maileguen politikan edo testuliburuaren "maileguaren eskeman", eta orduan izan zen estatuaren eta ikasleen gurasoen arteko elkar finantzazio sistema bati hasiera eman zitzaionean; hortaz, familiek, lehen aldiz, liburuaren kostuaren zati bat ordaindu behar zuten.

Sobietar ereduak eta gerora garatu zen moduak liburuaren mailegu-politika publikoari hasiera eman zitzaion, eta, oraindik ere, beste adibide garaikide batzuen erreferente izaten jarraitzen du sistema horrek (bai jarraitzeko zein saihesteko erreferente gisa). Sobietar kasu horien deskribapen labur bat egitea interesgarria izango litzateke maileguaren ereduaren bideragarritasunari buruzko eztabaida bere testuinguruan kokatzeko.

Horretarako arrakasta izan duten bi ekimenen ezaugarri garrantzitsuenak laburtuko ditugu. Armenia eta Lesothoko ekimenez ari gara.

## **Armenia**

3 milioi biztanle baino gehixeago dituen herrialde txiki honetan, hezkuntza sistema ezagun bat ezarri zen, eta sistema hori desagertu baino lehenago, sobietar blokearen sistematik arrakastatsuen izan zen.

Testuliburuaren maileguaren eredia 1995ean hasi zen diseinatzen Banku Mundialaren laguntzarekin, eta alde zuzeneko fase hori 1996 urte guztian zehar eta 1997. urteko programa pilotua probatu zenera luzatu zen. Fase horretan, hezkuntzako ordezkari guztiei aholkuak eskatu zitzaizkien etengabe, ikastetxeetako zuzendarietatik hasi eta irakasle eta ikasleen gurasoetaraino, bai eta argitaratzaileei, inprimatzaileei eta hainbat arloetako gobernuko ministerioei ere, eta, horrela, luze eztabaidatu zen adostasunak bilatu nahian.

Proposatutako ereduak bi arazoei egin nahi zien aurre bereziki: beharrezko testuliburuak ordaindu ahal izatea ikasle armeniar guztiek derrigorrezko hezkuntzarako eskubidea izan zezaten eta argitalpenen ekoizpena Armeniako errealitatera egokitu zedin. Banku Mundialaren kredituari esker, beharrezko liburuak inprimatu ahal izan ziren, sistema abian jarri ahal zen eta Armeniarentzako proiektu eramangarria izateko azken helburua lortzeko asmoa zuten.

Testuliburuaren mailegu-sistema ezarri eta 10 urte geroago, sistema nolabait ere eramangarria lortu dute, herrialdea pobrea izan arren. Desagertu zen argitalpen-industria armeniarra pixkanaka sartzen ari da testuliburuaren zirkuitu hala-hola egonkorrean.

## **Lesotho**

Lesothoren kasua, aztertutako beste kasu guztiekin konparatuz gero, egoera latzago batean izan zuen hasiera: liburu-banaketa gainera, liburuen prezioak jada oso altuak ziren, eta horren ondorioz, testuliburuak lortzea ia ezinezkoa zen familien gehientzat. Horregatik, testuliburu hornidurarako plan bat diseinatzea presazko bihurtu zen. Horretarako, plana diseinatzeko, Banku Mundialaren laguntza izan zuten.

Egungo eredian, testuliburuak Hezkuntza Ministerioarenak direla aurreikusten da, eta ikasleak horiek erabiltzeko eskubidea du ikasturte guztian zehar. Biltegiatze, banatze eta kudeaketa administratiboaren kostuak Hezkuntza Ministerioaren aurrekontutik ordaintzen dira, eta erabili behar diren liburuen kostua, aldiz, gurasoen ardura da aurretik aipatutako mailegu-tasaren bidez.

Oraingoz, Lesothoko liburuak mailegatzeko programa lehen hezkuntzarako besterik ez da; nahiz eta programaren mantenu-arazoak eta kostuak gorantz egin, oro har, balorazio positiboa da, ikasle guztiek testuliburuak izateko eskubidea dutelako eta liburu horiek hezkuntzarako eskubidea izateko baliabidea direlako.

**Etorkizunari begira, ondorioztatu daiteke, mailegu-sistema doakotasunaren eredia izateko nahiaz haratago, ikerketa bat egin behar dela eredu horren egokitasunari eta bideragarritasunari buruz sistema ezarri behar den kasu zehatzetarako. Nahiz eta formula horrek nolabaiteko arrakasta izan aipatu kasuetan (SEBSen, Armenian, Moldavian eta Lesothon), beste kasu batzuetan porrot egin dezake, eta, era berean, gizarte jakin batean eredu okerra izan daitekeena, beste gizarte batean hezkuntza unibertsala eta kalitatezkoa lortzeko erabakigarria izan daiteke.**

### **5.3. EAEn APLIKATUTAKO EREDUA**

Testuliburuak eta material didaktikoak modu solidarioan eta bidezkoan kudeatzeko programa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Agindu Proiektuak Eusko Jaurlaritzak doako liburuen alde bultzatutako ekimenaren printzipioak barne hartzen ditu. Halaber, ekimen horrek aipatutako printzipioak EAEko zentro publikoetan aplikatzeko jarraibideak ere mahaigaineratzen ditu. Txosten hau idatzi den data berean, aginduaren izapideak bideratzen ari dira oraindik. Hala ere, 2007ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez, 2007-2008 ikasturterako jarraibideak hezkuntza-zentro publiko guztietara bidali ziren. Izan ere, programa ikasturte horretarako abiaraztea aurreikusita zegoen, era mugatuan izan arren (lehen hezkuntzako lehen zikloko berariazko ezaugarriengatik, azalduko denez).

Agindu-proiektua eta haren ebazpena (bai haren lehenbiziko forman, bai programaren arauari buruzko forman) dira Hezkuntza Sailak bultzatu nahi duen mailegu-ereduaren muina, baita eredu horren azterketarako egindako txosten honen oinarria ere.

#### **Programaren printzipioak.**

Aginduak adierazten duenez, "Administrazioaren jarduerak bermatu egin behar du hezkuntzarako eskubidea, eta konpentsatu egin behar ditu desberdintasunak, oinarrizko arauak eta printzipioak betetze aldera". Alde horretatik, honela jarraitzen du aginduak: "... Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, dagozkion eskumenei jarraiki, bermatu eta arautu egin behar du derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiek beharrezko material guztiak izatea eta haiek modu solidarioan erabiltzea". Bi argudio horien bidez –hezkuntzarako eskubidea bermatzea eta gizarte-berdintasuna sustatzea– testuliburu eta material didaktikoen kudeaketa solidarioa eta bidezkoa abiarazi behar da.

Programa hori abian jartzeko argudioa eta haren atzean dagoen logika bikoitza da:

- Batetik, zuzentasuna; hau da, gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna bultzatzeko ahalegina. Ahalegin horrek gizarte- eta ekonomia-desberdintasunak orekatu eta arindu behar ditu, gastu handiak egin behar dituzten familiek dirua aurrezteko aukera izan dezaten.
- Bestalde, elkartasuna. Testuko edukiaren arabera, elkartasunak ekologia

eta baterako erantzukizuna lantzea esan nahi du, lehengaien eta baliabide urrien berrerabilpena sustatuz eta garapen iraunkorra bultzatuz.

## **Oinarriak**

Testuliburuak eta material didaktikoak modu solidarioan eta bidezkoan kudeatzeko programak testuliburuak eta berariazko curriculum-edukiak lantzeko materialak (zentroan bertan egindakoak eta kanpoan egindakoak) maileguan uztea du helburu. Programak barne hartzen dituen liburuak eta material didaktikoen jabeak hezkuntza-zentroak dira, eta, ikasturtea amaitzean, bertan geratuko dira. Hala, datozen lau ikasturteetan ere beste ikasle batzuek eraili ahal izango dituzte. Epealdi hori amaitu ondoren, hezkuntza-zentroak liburu eta material berriez hornituko dira. Lehen hezkuntzako lehen zikloko liburuak eta materialen kasuan, ordea, urtero berrituko dira, asko erabiltzen direlako eta, horrenbestez, azkarrago hondatzen direlako.

Programa pixkanaka aplikatuko da; hasteko, borondatezko programa esperimentalak landuko da, zentro-kopuru mugatu batekin hasi eta guztietara iritsi arte, Sailburuaren Aginduak agindu bezala.

Hezkuntza-zentro bakoitza arduratuko da programa kudeatzeaz. Horrez gain, Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio programaren helburuak betetzeko proposamenak egite, ebaluatzea eta aurkeztea, baita material guztia babesteko, erregistratzeko, identifikatzeko eta berrikusteko prozedura zehaztea eta, indarrean dagoen legeri jarraiki, programa betearazteko gainerako eginkizun guztiak betetzea ere. Halaber, zentroen esku dago materiala erabiltzeko eta zaintzeko arauak finkatzea, baita hura berritzeko ildoak definitzea eta, aurretik aipatu bezala, ikasturte amaieran liburu eta material guztiak gordetzea ere.

Programaren finantzazioak bi iturri izango ditu: batetik, programan izena eman duten ikasleen diruaren bidez eta, bestetik, Hezkuntza Sailak emandako diruaren bidez, materialak eta liburuak berritzeko eta curriculum ofizialean geratutako aldaketak sartzeko gastuak kontuan harturik.



**Eusko Jaurlaritzak finkatutako diru-kopuruan oinarritutako kanon-sistemaren bidez, familiek jarriko dute lau urtetik behin material berriak erosteko behar den ia diru guztia; hau da, lau urteko epealdi bakoitzean familien artean bilduko da liburu berriak erosteko diru guztia.**

Liburuak erosteko orduan, zentrotik gertuen dauden liburu-dendei eta banatzaileei emango zaie lehentasuna. Hala ere, oraindik ez da hori guztia kontrolatzeko neurririk finkatu. Liburu guztiak berritu behar diren ikasturteetan, familiek aurretik hitzartutako liburu-dendetara jo beharko dute; gainerako urteetan, berriz, hezkuntza-zentroa bera arduratuko da materiala banatzeaz, baita galdutako edo hondatutako aleak ordezkatzear ere. Beraz, orain arte liburuak erostera liburu-dendetara jo ohi zuten familiek eskoletan izango dituzte material guztiak hemendik aurrera. Neurtzeke dago oraindik programa horrek liburu-denda txikietan eta ertainetan izango duen eragina, baina litekeena da erosle-kopurua nabarmen murriztea.

Programaren kontrola organo eskudunen ardura izango da: hau da, Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzarena, Hezkuntza Zentroena eta Hezkuntza Ikuskaritzarena. Horrez gain, programaren jarraipenerako Batzorde Zentrala ere sortuko da. Batzorde hori kide hauek osatuko dute: Hezkuntza Berrikuntzarako zuzendaritzak, Hezkuntza Zentroetako Zuzendaritzako teknikari batek, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako hiru ordezkariak (Hezkuntza Sailburuordeak izendatuko ditu), Guraso Elkarteetako hiru ordezkariak eta hezkuntza-zentroetako hiru ordezkariak.

Agindu-legeak programari uko egiteko aukera ere barne hartzen du. Kasu horretan, adingabekoaren legezko ordezkariak programari uko egiteko eredu bat aurkeztu behar du hezkuntza zentroan, behar bezala beteta. Eredu hori aurkeztuz, ikasle horrek galdu egingo du eskola-materialak eskuratzeko edozein laguntza jasotzeko eskubidea.

Laburbilduz, liburuak maileguan uzteko programak ezaugarri hauek ditu:

Doakotasun-eredua	Mailegua
Finantzazioa	Kanona
Programaren xedea	Testuliburuak Material didaktikoa
Berritzeko epea	4 urte / 1 urte
Egungo onuradunak	Derrigorrezko Hezkuntzako Zentro Publikoetako Ikasleak
Programaren kudeaketa	Ordezkaritza Organo Gorenaren mendeko Batzordea
Argudio nagusiak	Zuzentasuna eta elkartasuna
Uko egiteko aukera	Bai. Uko egiten duenak ez du izango Hezkuntza Sailak material didaktikoak eskuratzeko ematen dituen beste edozein laguntza jasotzeko eskubiderik.
Ez da bateragarria	Sailekoa ez den beste edozein laguntzarekin.

### **Borondatezko programa esperimental**

Ereduaren bideragarritasuna neurtzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak programaren esperientzia pilotua egiteko dei egin zien hezkuntza-zentro publikoei. Zentro guztien artetik 29k erantzun zuten eta, hasieran programa pilotua 50 zentrotan aplikatu nahi zen arren, azkenean 24tan soilik aplikatu zen. Esperientziaren baliagarritasunak muga garrantzitsu bat du lehen hezkuntzako lehen zikloan; izan ere, ziklo horretan material eta liburu guztiak urtero berritzen direnez, ezin da berez benetako mailegu-modalitaterik aplikatu.

Ondoko taulan, deialdiari erantzun zioten hezkuntza-zentroak ageri dira:

**ARABA**

		ALUMNOS/AS IKASLEAK	AULAS GELAK
010230	SAMANIEGO (GASTEIZ)	430	20
010153	TOKI EDER (GASTEIZ) (* Se confirmará en septiembre. / Irailean ziurtatuko du.	275	12
		705	32

**BIZKAIA**

		ALUMNOS/AS IKASLEAK	AULAS GELAK
014331	ARTATZA-LOS PINOS (LEIOA)	50	3
014528	ALTZAGA (LEIOA)	90	6
014923	BERMEO-SAN FRANCISCO	365	16
014529	GOBELA (GETXO)	168	10
014432	KUETO (SESTAO)	304	18
014925	LEKEITIO	251	13
014378	ZALDUPE (ONDARROA)	222	12
014379	URDUÑA	70	5
014489	ZAMUDIO	57	4
014457	ZALDIBAR	116	6
014361	MUNDAKAKO ESKOLA	66	4
014327	LARRABETZU HERRI IKASTETXEA	77	5
014350	LEARRETA-MARKINA (MALLABIA)	41	3
014308	ALLENDE SALAZAR (GERNIKA)	390	18
014238	DIMA-UGARANA	65	4
014287	GORLIZ	230	13
		2.562	140

**GIPUZKOA**

		ALUMNOS/AS IKASLEAK	AULAS GELAK
012184	AMARA BERRI (DONOSTIA)	799	36
012072	BALENTZATEGI (GABIRIA)	22	2
012159	GAMON (ERRETERIA)	328	17
012356	LANGAITZ (ERRETERIA)	311	16
012334	LANGILE (HERNANI)	391	18
012214	IGELDO (DONOSTIA)	28	2
012244	SAMANIEGO (TOLOSA)	326	17
012338	TXINGUDI (IRÚN)	660	30
012287	LARDIZABAL (ZALDIBIA)	80	6
012265	SAN MARTIN AGIRRE (BERGARA)	269	14
012027	MURUMENDI (BEASAIN)	206	12
		3.420	170
<b>OROTARA / TOTAL</b>		<b>6.687</b>	<b>342</b>

2007/2008 ikasturtean –hau da, lehen hezkuntzako lehen zikloa duten zentro publikoetan programa derrigorrez aplikatu den lehen ikasturtean-, eta Hezkuntza Saileko iturrien arabera, 22.641 ikaslek parte hartu dute eta, horietatik, 135ek egin diote uko programari.

### **Kritikak eta zuzenketak**

Euskadiko Eskola Kontseiluko (EEK) Batzorde Iraunkorrak, 2007ko uztailaren 7ko txostenean, zenbait ñabardura eta kritika adierazi zituen, bai testuari buruz, bai ekimena abian jartzeko moduari buruz. Laburbilduz, txostenak honako alderdi hauek nabarmentzen ditu:

1. Testuliburuak hezkuntza-balio ukaezina dutela eta irakaskuntzan funtsezko eginkizuna dutela aitortu arren, txostenak adierazten du badituztela zenbait arrisku ere: hala nola, curriculumak egokitzeko aukerak mugatzeko arriskua, ikasleen arteko harremanak mugatzeko arriskua, eta ezagutza-eremuak zatikatzeko arriskua, gaitasunak modu globalean eta kritikoa landu beharrean. Horrenbestez, txostenaren arabera, ezinbestekoa da baliabide horri buruzko hausnarketa egitea eta beste alternatiba osagarri batzuk aztertzea.
2. Txostenak kritikatu egiten du borondatezko programa esperimentalak Agindu Proiektua Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrera bidali aurretik eta EHAA-n argitaratu baino lehen abiarazi izana, erakunde horren eginkizuna indargabetu egiten baita horrela. Halaber, txostenaren egileak ez datoz bat erabilitako datekin, ezinezkotzat jotzen baitute hezkuntza-zentroek aurreikusitako prozedura osoa betetzea. Izan ere, ebazpena ikasturtearen amaieran jasotzen da eta oso zaila da familiekin harremanetan jartzea, deialdian parte hartuko duten edo deialditik kanpo geratu nahi duten jakiteko.
3. Programaren bi kontzeptu nagusiei buruzko ñabardurak:
  1. Zuzentasuna: kontzeptu horren esanahia da baliabideak banakakoen eta zentroyen beharren arabera banatzea, jatorrizko desberdintasunak nolabait orekatu ahal izateko. Definizio horri jarraiki, testuliburuak maileguan uzteko programak ez du desberdintasunak orekatzeko zuzentasun-politikarik bultzatzen, zentro publikoko ikasle guztiei eskaintzen zaielako, bakoitzaren errenta-maila kontuan hartu gabe.

2. Elkartasuna: Txostenaren arabera, programak muga ugari jartzen dizkio kontzeptuari, liburuak ez baitira batera partekatzen, ondoz ondoko ikasturteetan baizik. Hala, txostenak hausnarketa hau jartzen du mahai gainean: programaren helburua garapen iraunkorreko baloreak bultzatzea bada, EAeko ikasle guztiengan aplikatu beharko litzatekeela, eta ez soilik zentro publikoetan. Bestalde, Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren ustez, testuliburuari uko egiteko aukerak bertan behar uzten du erabilera solidarioaren printzipioa, hezkuntza-zentro berean liburu berriak dituzten eta erabilitako liburuak dituzten ikasleak bilduko baitira.
  
4. Kudeaketari dagokionez, txostenak kritikatu egiten du zentroetan administrazio-saileko langile gutxi daudela. Izan ere, gabezia horrek asko oztopatzen du programa abiaraztea eta kontrolatzea, hezkuntza-zentro bakoitzari baitagokio eginkizun hori.
  
5. Irakaskuntzaren Lege Organikoaren 129. b) artikuluari eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen 5.2.a) artikuluari jarraiki, txostenak adierazten du Irakasle Klaustroari dagokiola hezkuntza-zentro bakoitzean zer testuliburu eta material didaktiko erabiliko diren erabakitzea, eta ez Ordezkaritza Goreneko Organoari. Izan ere, irakasleak dira hezkuntza-zentro bakoitzaren curriculum-proiektuan jasotako lan-sistemak hobekien ezagutzen dituztenak.

## 6. EREDUARI BURUZKO IKUSPEGIA, EGUNGO EGOERA ETA IZAN DEZAKEEN BILAKAERA

Ikerlan honen helburua, batetik, testuliburuak Euskadiko errealitate korapilotsuan eta konplexuan duen egoera azaltzea da eta, bestetik, gai horrek etorkizunean izan dezakeen egoerari buruzko hurbilketa bat egiten hastea. Horretarako, sakoneko elkarrizketak egin dira testuliburuak EAEn maileguan uzteko programan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten eragileekin, informazio kuantitatiboa azterketa kualitatiboarekin osatze aldera. .

Izaera eta eginkizun desberdineko profesionalen ikuspegi desberdinak, elkarlotuak eta, batzuetan, kontrajarriak biltzeko orduan, eskema honetaz baliatu ginen testuliburuak Euskadin duen egoerari eta etorkizunari buruzko gogoetak eta ideiak antolatzeko.

ARDATZAK	EREMUAK	EGOERA	ERAGINA	ETORKIZUNA
EKONOMIKOA	LIBURUAREN SEKTOREA			
	FAMILIAK			
	SEKTORE PUBLIKOA			
GIZARTE- ARDATZA	LIBURUA			
	TESTULIBURUA			
	SEKTOREAREN IRUDIA			
HEZKUNTZA- ARDATZA	TESTULIBURUA ETA CURRICULUMA			
	LIBURUAREN BALIOA			
	ANIZTASUNA			
	IKTak			
KULTURA- ARDATZA	IRAKURTZEKO OHITURA			
	EUSKARRIAK			
	SORKUNTZA			

Testuliburuak maileguan uzteko proiektuak EAEn izan dezakeen eragina ez da liburuaren merkataritza-sarean edo industrian soilik nabaritzen, gizarte osoan, hezkuntza-prozesuan eta kultura- sisteman baizik. Horrenbestez, hausnarketak arlo ekonomikotik haratago joan behar du, eragile guztien kezka, itxaropenak eta alderdi positibo nahiz negatibo guztiak kontuan hartuta eta bat egiten duten askotariko errealitatez osatutako esparrua osatuz.

Hori dela-eta, lau analisi-ardatz nagusi aurkezten ditugu (ekonomikoa, gizarte-ardatza,

hezkuntza-ardatza eta kultura- ardatza), guztiak ere azpi-ataletan banatuta. Lau ardatz horietan, aurreikuspenen arabera programak epe laburrean/ertainean izango duen eragina aztertzen da, bai egungo kontzeptualizazioan, bai alegiazko etorkizunean, ezagutzen diren koordenadak oinarri hartuta.

## 6.1. ARDATZ EKONOMIKOA

	EGOERA	ERAGINAK	ETORKIZUNA
LBIURUGINTZA	<p>Merkatu txikia (BPGdaren % 0,09), kostu finko altuak dituena. Oso merkatu konplexua da. Ez dago tamaina handiko argitaletxerik edo inprimategirik (merkatura eta hizkuntzara egokitutako industria). Sektore horretako negozio gehienek 600.000 eurotik behera fakturatzen dute. Oro har, fakturazioa murriztu egin da, euskarazko argitalpenek gora egin badute ere (guztizkoaren % 37,5). Derrigorrezko eskolatzeari buruzko testuliburuaren edizioari dagokionez, fakturazioak gora egin du ikasle-kopuruaren hazkuntzarekin alderatuz (Euskadiko argitaletxeen guztizko fakturazioaren % 23,2ra arte). Euskarazko liburuaren kasuan, guztizkoaren % 42,9 fakturatzen da. Banaketa-bideak eta/edo komertzializazio-sareak elkartzeko joera gero eta handiagoa da, batez ere liburu-dendetan: liburu-denden kateak eta merkataritza-gune handiak. Euskadin, bertako argitaletxeak eta kanpoko argitaletxeak daude. Testuliburuaren salmentari esker, beste zenbait kultura-produktu ekoitzi ahal izaten dira.</p>	<p>Fakturazioa egungoaren % 45era murriztu daiteke. Liburuaren balio-kate guztian izango du eragina: egileengan, argitaletxeetan, liburu-dendetan, grafikoetan, banatzaileetan eta industria laguntzailean. Hala ere, eragina handiagoa izango da enpresa txikietan eta ertainetan, eta haiexek dira, hain zuzen, sektoreari aniztasuna ematen diotenak. Murrizketak egingo dira argitalpenetan (material osagarriak...) eta kalitatean.</p>	<p>Argitaletxeen gastuak moldatu egingo dira errealtate berrira. Ekoizpena kanporatu egingo da. Merkatu berriak eta handiagoak bilatuko dira (gaztelaniazkoak). Argitaletxeak elkartu egingo dira eta enpresa eta liburu-denda txiki gehienak, berriz, desagertu. Testuliburuaren monopolizazioa gertatuko da. Negozio-bolumena eta lan-eremua murriztu egingo dira (zuzenean eta zeharka). Filialak itxi eta produktua estandarizatu egingo da.</p>
FAMILIAK	<p>Familiek irailean ordaintzen dituzte ikasturte guztirako testuliburuak. Etxeetan liburu-kopuru mugatua dago. Beka ugari daude zailtasun ekonomikoak dituzten familientzat. Araban, diru-laguntzak globalagoak dira, eta zenbait udalerritan (Abadiñon, adibidez), zentro publikoetako ikasleen liburuak ordaintzea proposatu da. Neurriak harrera ona izan du herritarren artean, eta errentagarritasun politiko nabarmena izan dezake atzean.</p>	<p>Diru-kopuru nabarmena aurreztuko dute. Derrigorrezko "elkartasuna". Programa zentro publikoetan hasiko da eta, ondoren, zentro pribatuetan aplikatuko da.</p>	<p>Desberdintasunak azpimarratzeko arriskua (uko egiteko aukeraren ondorioa). Ardatz ekonomikoaren lehentasuna, hezkuntza-ardatzaren gaineratik. Testuliburuak ordaintzen dira, baina ez ikasleek behar duten beste material batzuk: arropa, motxila... Liburu gutxiago egongo da etxeetan.</p>
SEKTORE PUBLIKOA	<p>Sektore publikoaren parte-hartze urria liburu-sektorean. Sektore publikoaren diru-laguntza gehienak sorkuntza propioetara eta hizkuntzara bideratzen dira. Zailtasun ekonomikoak dituzten familien kasuan, testuliburu eta material didaktiko guztiak ordaintzen dira.</p>	<p>Gatazka liburuaren jabego intelektualarekin. Prozesua azkarregia da, eta neurriak aplikatu ondoren hitz egiten da kaltetutako eragileekin.</p>	<p>Sektore publikoa nagusi izango da testuliburuaren ekoizpenean. Merkatua eraldatu eta monopolizatu egingo da (erosle bakarra). Bertan sortutako testuliburuak / liburuak eskuratzeko laguntzak ezinbestean zabaldu beharko dira.</p>



## 6.2. GIZARTE-ARDATZA

	EGOERA	ERAGINAK	ETORKIZUNA
<b>LIBURUA</b>	Irakurketaren garrantziari buruzko kontzientziazio orokorra, irudimenaren pizgarri, askatasun-sustatzaile eta kultura komunaren bultzatzaile gisa. Hezkuntza-zentroek funtsezko eginkizuna izango dute irakurketaren balioari buruzko kontzientzia hori garatzeko orduan. Irakurtzeko arrazoi nagusia: entretenimendua, baina ikasketak eta kultura-mailaren areagotzea ahaztu gabe. Ez irakurtzeko arrazoi nagusia: denborarik eza. Euskara gero eta gehiago agertzen da testuliburuetan. Testuliburuaren kalitatea altua da, oro har (edizio-lana zaindu egiten da).	Ekoizpenaren eta euskararen presentziaren beherakada. Liburuaren balioa gutxitu egingo da gizartearen. Liburu-mota gutxiago. Zailagoa izango da irakurtzeko ohiturak sustatzea.	Euskarak zalantzazko etorkizuna izango du. Galdu egingo da liburuak eta irakurketak egun duten izen ona. Liburuak garrantzi gutxiago izango dute. Aldaketak beranduago ikusiko dira (2010). Bide berriei ekiteko beharra (liburuaren inguruko industria guztia).
<b>TESTULIBURUA</b>	Testuliburuak gizarteak diren bezala islatzen ditu, eta ezinbestekoak dira euskal kultura garatzeko eta hedatzeko. Itzulpengintzak ez du helburu hori betetzen. Erakunde publikoek testuliburuaren edukiak zehazten dituzte lehendabizi, haien edukiak ondo kontrolatu nahi baitituzte. Liburu-dendak desabantaila-egoeran daude, beste banaketa-formulen aurrean (Guraso Elkarteak, zuzenean saltzen duten argitaletxeak). Prezio askeak abantailak ematen dizkie merkataritza-gune handiei (marjinak murrizteko gaitasun handiagoa dute). Liburu-dendak kanpoan uzteko egungo (eta lehengo) joera.	Hondatutako liburuak ordezkatu arren, liburuaren egoera orokorra okerragoa izango da. Ikasle batzuek liburu berriak izango dituzte, eta beste batzuek, berriz, erabilitako liburuak. Fotokopia-kopuruak gora egingo du. Testuliburuaren negozioa murriztu egingo da. Liburu-dendak baztertzeko joera areagotu egingo da.	Testuliburuaren balioa gutxitu egingo da, baita egileen eta edukien balioa ere. Fotokopien baliabidea askoz ere gehiago erabiliko da, eta beharrezkoa izango da hezkuntzaren hasierako etapetan. Liburu-dendak testuliburuaren zirkuitutik kanpo geratuko dira.
<b>SEKTOREAREN IRUDIA</b>	Testuliburuaren balioespen positiboa eta haien kalitatearen aintzatespena. Ez da ezagutzen testuliburuak hautatzeko erabiltzen den prozesua, ezta curriculumean egindako etengabeko aldaketek sektorean duten eragina ere. Irailean testuliburuaren diru asko gastatzen dela uste dute (kostu subjektiboa). Gizarteari sektorearen errealitatea jakinarazteko ezintasuna. Herritarrek ondo hartzen dute testuliburuaren doakotasuna.	Argitaletxeek galdu egingo dute proiektu pedagogiko berritzaileen sortzaile izatearen ospea. Gizarteari irudituko zaio sektoreak programarekiko erresistentzia interesatua duela.	Denborak aurrera egin ahala, familiek ahaztu egingo dute aurreztutako dirua. Kulturaren balioa galdu egingo da, oro har. Edozer gauzaren truke ordaindu behar da, kulturaren truke izan ezik: liburuaren sektorea, musika, antzerkigintza eta abar luze bat.

### 6.3. HEZKUNTZA-ARDATZA

	EGOERA	ERAGINAK	ETORKIZUNA
TESTULIBURUA CURRICULUMA	<p>Testuliburuak, curriculum-garapenerako abiapuntu. Hainbat curriculum-proiekturen garapena. Argitaletxeek lagundu egiten diete irakasleei beren eginkizun pedagogikoa betetzen. Hezkuntza-zentroetan bertako curriculumak eta/edo curriculum zentralak erabiltzen dira. Lehiakortasuna, berrikuntza eta kalitatea fakturazio-bolumen jakin batean oinarrituta).</p>	<p>Baliabideen erabilera arrazionala (berrerabilpena). Liburuaren balio pedagogikoaren muga (liburuak, lanerako tresnak). Zailtasunak edizioak eguneratzeko eta gobernu zentralak eta elkarte autonomoek finkatutako curriculum-ildoetara egokitzeko. Lehiakortasunaren galera.</p>	<p>Ezinezkoa izango da liburuak irakasleen balorazioaren arabera urtero eguneratzea. Ikuspegi propioa galdu egingo da testuliburuetan. Hautatzeko aukera murriztu egingo da, eta hautaketa irizpide ekonomikoen arabera egingo da.</p>
LIBURUAREN BALIOA	<p>Testuliburuak gainerako liburuak baino kalitate hobegoz argitaratzen dira (paperaren kalitatea, grafismoa, kolorea, etab.), ikasleentzat bereziki erakargarriak izan daitezten. Kolorea, irudia eta multimedia-edukiak erabiltzen dira ikasgaiak hobeto ulertzeko eta ikasteko. Erositako liburuek jakin-mina pizten dute. Liburua, lanerako tresna.</p>	<p>Erabilitako liburuak ez dira berriak bezain erakargarriak. Ondorioak paperaren kalitatean, kolorean eta irudi-kopuruan.</p>	<p>Materialak ez dira horren erakargarriak izango. Motibazioa gutxitu egingo da ikasleen artean. Liburuak tresna zaharkituztat hartuko dira, eta ez dira horrenbeste balioetsiko. Oraingo ez da alternatibarik ezagutzen.</p>
ANIZTASUNA	<p>Liburu berri ugari argitaratzen dira urtero. Irakasleek testuliburu eta material ugariaren artean aukera ditzakete (aukera handia dago). Liburuetan Elkarte Autonomo bakoitzeko ezaugarri bereziak ager idira, batez ere Gizarte Zientzietako liburuetan. Merkataritza-gune handiek zenbait liburu banatzen dituzte soilik (Gausen kanpaia).</p>	<p>Testuliburu gutxiago argitaratuko dira. Muga materialak liburuak eguneratzeko orduan, ez argitalpenagatik, lau urtetik behin berritzen direlako baizik. Hezkuntza-zentro guztiek diru-laguntza bera jasoko dute, batez beste.</p>	<p>Hezkuntza-zentroek liburu gutxiago izango dituzten hautatzeko. Aukeratzen dituzten liburuak lau urterako izango dira, nahitaez. Aurrekontu bateratua hezkuntza-zentro guztietan: hautaketa egiteko, arrazoi ekonomikoei erreparatuko zaie, eta ez hainbeste liburuen edukiari.</p>
IKTak	<p>Nahi adina informazio Interneten aurki daiteke. Haurrek eta gaztetxoek gero eta gehiago erabiltzen dituzten IKTak. Etengabeko aldaketak gertatu dira historian zehar.</p>	<p>Sarean aurki daitekeen informazio guztia ezagutzarekin eta kulturarekin nahasteko arrisku handia. Epe laburreko/ertaineko aldaketa-prozesu baten hasiera.</p>	<p>Egileek lanean jarraituko dute, baina haien iraupen ekonomikoa gero eta zailagoa izango da. Edukiengatik ordaintzen jarraituko dute, baina euskarriaren balioa murriztu egingo da.</p>

#### 6.4. KULTURA-ARDATZA

	EGOERA	ERAGINAK	ETORKIZUNA
<b>IRAKURKETA-OHITURAK</b>	Euskal biztanleriaren erdiak aisialdian liburuak irakurtzeko ohitura du. Irakurtzen diren liburu gehienak gaztelaniaz idatziak dira (% 95). 6 urtetik beherako haurren % 72k liburuak irakurtzen ditu, baita 6 eta 14 urte bitarteko haurren eta gaztetxoek % 88k ere. Liburu-erosleen % 25ek testuliburuak erosten ditu soilik. Biztanleen % 25ek baino gutxiago erosten ditu bestelako liburuak.	Etxeetako liburutegiak asko murriztuko dira. Zenbait etxebizitzetan edozein prestakuntza-etapako testuliburuak daude soilik. Testuliburuak ez dira gehiago erosiko, ezta haurrentzako eta gaztetxoentzako literaturarik ere. Liburu-dendak gero eta urrunago egongo dira, ez baita beharrezkoa izango bertara joatea testuliburuak erosteko.	Etxe batzuetan ez da libururik egongo. Gurasoek galdu egingo dute haurrentzako eta gaztetxoentzako liburuak erosteko ohitura. Liburu-denden kopurua asko murriztuko da, eta, beraz, liburu-denda txikietan eta ertainetan ez da bakoitzaren beharren arabera salmentarekin egingo.
<b>EUSKARRIA</b>	Munduan, paperaren kontsumoak gora egin du, ez da inolaz ere murriztu. Biztanle gehienek ordenagailua eta internet erabiltzeko aukera dute. Hezkuntza-zentro guztietan ekipamendu informatikoak daude, baina agian ez dira nahikoak. Testuliburuak multimedia-edukiak dituzte, CD/DVDen bidez, argitaletxeen web-erreferentzien bidez edo Interneteko beste atari-mota batzuen bidez.	Kalitatea galtzeko arriskua. Haurrek eta nerabeek ikusiko dute multimedia-euskarriak ez direla ordaindu behar. Doakotasunaren kultura.	Hezkuntza-mailen aniztasuna eta gero eta ohikoagoa den kultura-aniztasuna hobeto lantzeko aukera. Euskarri klasikoak nekez ordezkatu ahal izango dira. Osagarritasuna.
<b>SORKUNTZA</b>	Argitaletxeak testuliburuak mende daude. Diru-laguntzen bidez ez dira ordaintzen zenbait argitalpenen galerak, batez ere euskararen merkatu mugatuan. Liburu baten ekoizpen-prozesuan, sorkuntzak du kosturik handiena. Egileak dira argitaletxeetako aktiborik handiena.	Desoreka liburu-sektorean, industria indartzeko neurriak hartu baino lehen. Sektoroko zenbait arlotan egindako inbertsioak galdu egingo dira.	Euskara ez da errentagarria izango. Gero eta euskaldun heldu gehiagok ez dute euskal literatura eta/edo euskarazko literatura eskuratzeko aukerarik izango. Zailtasun larriak sortuko dira egileei (batez ere, euskaraz idazten dutenei) ordaintzeko eta haiei pizgarriak emateko.

## 7. JARRAIPEN-ILDOEI BURUZKO PROPOSAMENA

Testuliburuak eta material didaktikoak modu solidarioan eta bidezkoan kudeatzeko programa gizarte-eremuan, eremu ekonomikoan, hezkuntza-eremuan eta kultura-eremuan nola aplikatzen den aztertuta eta laburpen-taulan elkarrizketatutako eragileen ikuspegia bilduta, heldu da zenbait **zaintza-eremu** adierazle gisa finkatzeko garaia.

Ikerlan honen helburua zera da: testuliburuak eta material didaktikoak modu solidarioan eta bidezkoan kudeatzeko programa zer egoeratik abiatzen den **azaltzea** eta gai horrek etorkizunean izan dezakeen egoera **iragartzen** saiatzea. Nahitaezkoa da arretaz zaintzea bai programa nola aplikatzen den, baita programak zer eraldaketa eragin ditzakeen. Horretarako, lau jarraipen-ildo aurkezten ditugu, egoera berrirako prestatzeko.

Programaren jarraipen-ildo horien bidez eta programak EAEko hezkuntzan, gizartean eta kulturean eragin ditzakeen kalteen jarraipen-ildoen bidez, hasierako faseetan baino **azterketa egokiagoa** egin dezakegu mailegu-ereduak izan ditzakeen eraginei buruz, betiere kontuan haturik egokiagoa dela egungo egoera birbideratzea etorkizuneko ondorioak konpontzen saiatzea baino.

Ikerlan honen bidez, etorkizuneko egoera iragarri nahi dugu, egungo errealitate konplexutik abiatuta. Hala izanik ere, ezinbestekotzat jotzen dugu identifikatutako arlo guztien bilakaeraren **jarraipen egituratua** egitea, halako aldaketa batek ekar ditzakeen erronkei eta arriskuei aurre egin ahal izateko.

## **1. ILDOA: Irakaskuntzaren kalitatea.**

Orain arte, ikasleak izan dira testuliburuaren jabeak, eta bertan idazteko, ideiak azpimarratzeko eta gauzak marratzeko aukera izan dute. Orain, berriz, programaren bidez, ikasleek **kontsulta**-baliabide gisa soilik erabili ahal izango dituzte testuliburuak. Hala, tresna horiei buruzko ikuspegia erabat aldatzen da, ikasleei liburuak aldi baterako “utziko” zaizkielako eta, horrenbestez, kontu handiz erabili behar izango dituztelako lau ikasturteetan zehar. Liburu bat hondatzen duen ikasleak liburu berria ordaindu beharko du.

Adibidez, atzean geratzen da aurreko ikasturteetako liburuak kontsultatzeko aukera. Izan ere, ikasleek **ez dute etxean libururik izango** eta ezin izango dute nahi dutena egin liburuekin. Aitzitik, liburuak aldi baterako hartuko dituzte maileguan eta liburu horien baldintzak etengabe ikuskatuko dira.

Hala ere, eta gainerako ildoei dagokienez, aipatu dugu dagoeneko argitaletxeen eskaintza murriztu egingo dela, eta litekeena dela hezkuntza-zentroek **irizpide ekonomikoei** jarraitzea bakoitzaren aurrekontuaren arabera liburu-sortak hautatzeko orduan. Gauzak horrela, curriculumaren malgutasuna eta aniztasuna murriztu egin daiteke, eta egoera horrek kalteak eragin ditzake hezkuntza-zentro bakoitzak eskain ditzakeen edukietan eta ezaugarrietan.

## 2. ILDOA: Kultura: sorkuntza eta kontsumoa.

Merkatu txikien berezko arazoak abiapuntutzat harturik, negozioaren bolumena murrizten duten neurrien ondorioz areagotu egiten da kostu finkoen pisu erlatiboa, baita merkatu erakargarriagoetan **eskalako ekonomiak** bilatzeko beharra ere. Hala, aurreko ildoan azaldu denez, zailagoa izango da beste kultura-adierazpen batzuk bultzatzea.

Euskarazko material propioen argitalpenak errentagarri izateari uzten badio ezinezkoa da egileei pizgarri ekonomikorik eskaintzea, eta, horrenbestez, **erdi-borondatezko ekonomia** batean sartzen gara. Oso zaila da, ordea, ekonomia-mota horri eustea egungo gizartean. Horrenbestez, **sorkuntza propioa** arriskuan geratzen da, egileak beste lan-eremu batzuetan sartzen direlako eta testuliburuaren jatorrizko testuen sorkuntza **amateurizatu** egiten delako. Horren guztiaren ondorioz, eskaintza urritu egingo da eta gero eta ohikoagoa izango da kontsumorako kultura-ondasunak inportatzea.

Testuliburuak euskarazko sorkuntzaren **elementu bultzatzaileak**, eta, egoera berriak sorkuntza kaltetzen badu, antzeko zerbait gerta daiteke kontsumoarekin ere. Kontuan hartu behar da erosten diren liburuen % 25 testuliburuak direla eta, hainbat etxetan, testuliburuaz gain, ez dagoela beste libururik. Horrez gain, **euskaraz argitaratutako liburuen laurdena** baino gehiago lehen hezkuntzarako eta DBHrako testuliburuak dira.

Liburu propioen kopurua murrizteak **kaltetu egiten du irakurtzeko ohituraren sustapena**. Horrekin batera, gehiegizko mendekotasuna sortzen da kanpoko produktuekiko, eta asko **pobretzen da euskal kulturaren sorkuntzaren/kontsumoaren zirkuitua**.

### **3. ILDOA: Hizkuntza-errealitatea.**

Agerikoa da gure gizartea elebiduna eta gero eta eleanitzagoa dela. Errealitate horrek are eta gehiago zatikatzen du berez oso mugatua den bi milioi eta erdi biztanleko merkatua. Egoera horren ondorioz, merkatua hainbat mikromerkatutan zatitzen da, eta horrek guztiak industria arina sustatzen du; arina bai, baina txikia eta hauskorra ere bai. Izan ere, orain arte liburuaren industriaren iraupena bermatuta zegoen testuliburuek emandako diru-sarrerei esker; orain, ordea, egoera berriarekin, diru-iturri hori zalantzan jartzen da. Gauzak horrela, testuliburuez gain, euskal liburuaren sektoreko beste kultura-adierazpen batzuk ere arriskuan geratzen dira.

**Euskarazko argitaratze-proiektuen bideragarritasun ekonomikoa** oso egoera korapilotsuan geratzen da, errealitate berriaren ondorioz argitaletxeek eta liburugintzako enpresek berregituratu egin beharko baitute beren finantza- eta merkataritza-sarea. Gauza bera gertatuko zaie EAEn sartzen ari diren elkarteen **hizkuntza-integrazioaren** alde lanean diharduten ildo berriei ere.

Zalantzarik gabe, egoera berriak (mailegu-programa beste faktore bat da egungo negozio-ereduaren gaineko esku-hartzearen ikuspegitik) bakartasun idiomatikoa bultzatzen du, eta arreta handiz zaindu beharko da euskararen presentzia, bai eskoletan, baita **liburuaren balio-katearen prozesu guztian** ere, hasi sorkuntzatik eta liburu-dendetan eta merkataritza-gune handietan dauden testuliburuaren kopurura arte.

#### 4. ILDOA: Liburuaren kultura-industria.

Derrigorrezko irakaskuntzan testuliburuak maileguan emateko modalitateak (Frantzian eta Galizian, adibidez) argi agertzen du **enpresa-kontzentrazio** joera garbia, bai argitalpenen arloan, bai banaketaren eta komertzializazioaren arloan.

Enpresen **tamainen eta eredu**en aniztasun-maila da jarraipen-ildo objektiboenetakoa programak Euskadiko liburugintza-industrian izango duen eragina neurtzeko. Horrenbestez, arlo horretan ezinbestekoa da **zaintza-sistema** bat ezartzea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ondorioz, **testuingurua asko globalizatu da, eta euskarriak krisi-egoeran** daude. Egoera horrek guztiak zenbait erronka jarri dizkio aurrean liburuaren kultura-industriari, oro har. Mailegu-ereduak ez du inolaz ere errazten erronka horiek gainditzea. Are gehiago, eredu horrek oztopatu egiten du merkatu txikietara egokitutako negozio-ereduen iraunkortasuna eta, aldiz, bultzatu egiten du **ale-kopuru handien** inprimaketa. Beraz, esan daiteke mailegu-ereduak abantailak ematen dizkiela enpresa banatzaile handiei.

Mailegu-programa abiaraztea beste aldagai bat da **kontzentrazio-prozesua bizkortzen duten** faktore-multzoaren barruan. Izan ere, faktore horiek guztiek nabarmen murrizten dute testuliburuaren salmentagatiko fakturazioa, eta, orain arte, arlo hori hil ala bizikoa izan da argitaletxe eta liburu-denda txikientzat eta ertainentzat.